

## ► IRITZI ETA GOGOETA

Pili AGIRRE • <i>Birziklapena</i> .....	4
Juan Luis MUGERTZA • <i>Hello, idazle Eskoalkoak!</i> .....	6
Juan Mari APAOLAZA • <i>Etxera bidea</i> .....	7
Mikel SANTIAGO • <i>Lilit</i> .....	8
Laida AZKARGORTA • <i>Nola igaro egun bat...</i> .....	10
Maidar SUKUNTZA • <i>Adioak</i> .....	11

## ► NARRAZIOAK

Arantxa URBIETA • <i>Bost minutu</i> .....	12
Alfredo RODRIGUEZ • <i>Epaixka</i> .....	14
Ander ZULOAGA • <i>San Martin eguna</i> .....	16
Ainhoa ODRIOZOLA • <i>Ene oroitzapen minena</i> .....	18
Garbiñe ETXANIZ • <i>Buenos Aires</i> .....	20
Anttoni LOPETEGI • <i>Erabakia</i> .....	22
Araitz GARAITA • <i>Postaria</i> .....	24
Iker ZALDUA • <i>Serapio Miranda</i> .....	26
Asier IRIONDO • <i>Kimikako Irakaslea</i> .....	28
Oihaneder INDAKOETXEA • <i>Hitzezko sekretuak</i> .....	29
Isabel ETXEBERRIA • <i>Edo agian</i> .....	30
Juan Mari ZUNZUNEGI • <i>Iratxoa eta gotzaina</i> .....	32
Iñaki ALBISUA • <i>Amet</i> .....	33

## ► ELKARRIZKETA

Iker ZALDUA • <i>Oier Guillan</i> .....	34
---	----

## ► NARRAZIOAK

Izaskun JAUREGI • <i>Itsusi</i> .....	42
Josune ARANGUREN • <i>Habi-Ohea</i> .....	43
Edurne LAZKANO • <i>Tentazioak</i> .....	44

## ► GAZTE LITERATURA

Maribel AIERTZA • <i>Koadroko neskatxa</i> .....	46
Zuriñe VELEZ DE MENDIZABAL • <i>Egia ote</i> .....	48
Maidar ZIAURRIZ • <i>Agur</i> .....	50

## ► POESIA

Iker ZALDUA • <i>Bidaia...</i> .....	52
Aritz GALARRAGA • <i>Egunero...</i> .....	53
Patxi LOPEZ DE TEJADA • <i>Belar-Ikatza...</i> .....	54

## ► SOLAS ETA JOLAS

Arantxa AURREKOETXEA • <i>Mila eta bat</i> .....	56
Arantxa AURREKOETXEA • <i>Une laburreko...</i> .....	57
Joseba ZUBIZARRETA • <i>Sugus</i> .....	58
Anttoni LOPETEGI • <i>Koloreak Mintzo</i> .....	60
Juan Mari APAOLAZA • <i>Horoskopoa</i> .....	62

## ► IRAKURKETAK

Aritz GALARRAGA • <i>Komunikatzen</i> .....	64
Aritz GALARRAGA • <i>Biolinaren jatorria</i> .....	65
Aritz GALARRAGA • <i>Anne</i> .....	66
Aritz GALARRAGA • <i>Kontsumo Gizartea</i> .....	67
Aritz GALARRAGA • <i>Pospolo kaxa bat bezala</i> .....	68
Aritz GALARRAGA • <i>Auzoak eta auzoak</i> .....	69
Markos UNTZETA • <i>Gaua basamortuan</i> .....	70
Iasmina GORROÑO • <i>Krokodiloa</i> .....	71

## ► NOR DA NOR .....

## ► ARRASTOA .....

### © IDAZLE ESKOLA

#### Zuzendaria:

*Tere Irastortza*

#### Idazkuntza Kontseilua:

*Tere Irastortza, Vicente Huici,*

*Jose M<sup>a</sup> Velez de Mendizabal.*

#### Idazkuntza Kontseiluko ikasleak:

*Maribel Aiertza, Arantxa Aurrekoetxea,*

*Juan M<sup>a</sup> Apaolaza, Isabel Etxeberria,*

*J.L. Mugertza, Iker Zaldúa.*

#### Irudiak eta Argazkiak:

*Cristina Fernandez.*

*Azaleko argazkia, J. M. Olazabal*

*“Eustaquio Aguirreola. Pintore eta*

*argazkialaria. Pintor y Fotógrafo”*

*liburutik hartua.*

#### Eskerrik beroenak :

*Asun Monzon, MUGALARIKO kideari.*

*MUGALARIKO talde osoari eta Cristina*

*Fernandez-i. Bergarako Udai Artxibategiari.*

#### Maketazioa : FMA eta K3

#### Inprimaketa:

*K3 Inprimategia.*

*Amillaga 1 - 6. Pab. - 20570 Bergara.*

*L.G.: SS-803/04*

#### L. LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUETAN:

DONOSTIA: Delta (E.S.T.E.), Bilintx, Hontza. • BILBO: Urretxindorra • IRUÑEA: Xalbador, Auzolan, Kalaska (Zabaldi elkarteak). • GASTEIZ: Arriaga • LEGAZPI: Ekai • AZPEITIA: Eklipse • SOPELA: Nikola Euskaltegia • ONDARROA: Zuru-Murru • DURANGO: Denda-Hitza • BEASAIN: Gaztetxea • GAZTELU: Herriko Taberna • ZEGAMA: M<sup>a</sup> Jexuxen denda • HERNANI: Lete liburudenda • BERGARA: Etxepare.

## ● IDAZLE GURAKOAREN ESKULIBURU TXIKIA ●

**H**ona hemen idazteko beldurrari eta egarriari aurre egiteko zazpi aholku (edo neuk neure buruari sarritan eman dizkiodan gomendioak, idatzi nahi baina idazteko adore faltan edo trabaturik izan naizenean):

**1) Lehenengoa: begiak itxi eta trokan behera salto egin.**

Idazteko, erreparoa hozkatu behar dituzu, aurrejuzkuei bizkarra eman eta burutazio ankerrei ezikusiarrena egin. Ausartu. (Horixe esanez sartu zitzaidan Merimée etxean: "Zure sukaldean kerik ez eratzeko era hoberena, bertan surik ez piztea").

**2) Bigarrena: dakizuna dakizula onartu.**

Ez ezazu erabili zure ezjakintasuna zeure aurkako zar-tailu modura, termometro modura baizik. Hala ere, elika zaitez: jan-edan denetarik: poesia, eleberria, saiakera, haur eta gazte-entzako literatura, usadiozko testuak, bertokoak nahiz kanpokoak... (Badaezpada, Quevedok mezu bat utzi zidan almohadan: "Recuerda que el que parece sabio entre los tontos, parece tonto entre los sabios").

**3) Hirugarrena: berridatzi zeure erara.**

Guztia aspalditik idatzita dagoela gogoratu. Idaztea berri-daztea da. Ostera, zuk bilatu zeure ahotsa. Apustu egin erakargarriena zaizun generoaren alde. Ez pentsatu arrakasta izango duzun ala ez, edota liburu asko salduko, eta ez sartu imitazioen jokoan. Menturaz, ez zaizkizu argialetxeen ateak zabalduko; bizkitartean fedearen bermea izango duzu, jabetasunaren estimua, barruko taupadari jaramon egiteak emandako defentsa. (Horregatik, André Gidek, maltzur, esaten zidan trenean, lanera bidean: "Baina neska, ez al dakizu literatura negargarria egin litekeela pentsamendurik onekin ere...!").

**4) Laugarrena: paradoxari garrantzia kendu.** Ia inork ez zaitu idazletzat hartzen. Gainera, lotsa emango lizuke gizarateak *idazle* izendatzen dituenen aurrean idazle-plantak egiten agertzea... Horratik, ezin duzu ukatu

gehiago duzula idazletik, iturgin, erizain edo dendaritik baino. Hortaz, beharrezkoa zaizu terminologia-ñabardura bat konpontzea, zoratuko ez bazara: *idazle gurakoa* deitu zeure buruari, eta kito. A zer liberazioa! Hori azertua! (Halaxe baieztatu zidan Pirandellok, telefonoz: "Kontzientzia, norberaren baitan sarturiko beste pertsona bat da, ez besterik").

**5) Bosgarrena: lasterketak baztertu eta musu-huts utzi banitatea.** Seguruenik, euskal literaturaren urrezko antologietan tarterik izango ez duzunez, abantailaz eta aske jokatzeko moduan zaude. Sakon hartu arnasa, zure iritziak inbidiaren mende ez uzteko, eta zure

burua norgehiagokerien bizioak harrapa ez dezan. Zorionez, kritika onaren besarkadak hartuko bazintu, ez harrotu, dena da-eta iragankorra. (Orduan, Borges-en gutun bat aurkitu nuen postontzian: "Idatzi dituzten orriez harropuztuta dabilta batzuk"—zioen—; "ni neu, irakurri ditudan orriez harrotzen naiz").

**6) Seigarrena: etengabeko autoe-baluaioa egin.** Eman egurra zure idazkiei. Posible den neurrian, ez ezazu jo lan bat amaitutzat hobeto ezin egin dezakezula uste izan arte. (Eta zorionez, Pessoa goxo xuxurtlatzen zidan supermerkatuko ila-

ran: "Zaren guztia jar ezazu egiten duzuna egiten duzula, gauza ñimiñoena izanda ere").

**7) Zazpigarrena: paperontzira ezertxo ere ez bota sekula.** Behin-behinekoz baliogabetu, bai; ezereztu ez. Utzi egonean egoten idatzitakoari, uneko potoak, txulut egindako lerroak, gerora, alferrik galduko ez den ongari izan litezkeelako. (Eta hona hemen aipurik biribilena, etxeko ispiluak errepikatzen didana: "Jesus, Maria eta Jose! Hamaikatxo testu eskas idatzi behar dira pasarte dezente bat lortzeko)."

*(Oharra: norberaren buruari bultzatzeko aholku horiek eskarmentua dute oinarri. Ez dira erraz usatzekoak eta ez dira guztiz finkoak, baina iraungitze-datarik ere ez dute. Noizean behin errepatatuz gero, mesede egiten diote osasunari).*

**Miren Agur Meabe**



## A-8 “ASTOPISTA”

**S**uge baten modura, itsas ertzetik doan N-634 errepidetik itzuli naiz gaur Donostiatik Debara. Gurasoak umekin jolasten ikusi ditut Getariako frontoian, eta Surfistak Orruan, olatuei begira. Gustuko dut errepide hau, batez ere, Zarauztik Zumaiara doan zatia. Itsasoa harro dagoenean indar biziz jotzen dute olatuak errepidearen aurka. Autoak bustitzen dituzte eta kresal usaina airean hedatzen da. Ederra da N-634a. Ederra eta motela, 55 minutu behar izan ditut 42 kilometro egiteko.

Ibilbide berdina A-8 “istripupistatik” 25 minutu dira, mendia erortzen edo bestelako istripurik gertatzen ez bada. Mendia erortzen denean N-634ra desbideratzen dute zirkulazioa. Kasu horietan N-634 errepidea kolapsatu egiten da, izan ere, ezin du A-8ko zirkulazio guztia bereganatu. Nik neuk, mendia erori zenean, N-634tik nindoala, laurogeita hamar minutu behar izan nituen 14 kilometro egiteko.

A-8a Espainiako errepide garestienetarikoa da nahiz eta bihurgune asko dituen, beti obretan dagoen eta zuloak dituen. Urte dezente dira A-8 “dirupistak” bere burua ordaindu zuela, baina kobratzen jarraitu dute. Berdin du auto ilarak badaude, beraiek kobratzen jarraitzen dute. Kobratzen eta prezioa igotzen, eta guk, alternatibarik ez dagoenez, ematen duten zerbitzu penagarria ordaintzen.

Belgikan, Danimarkan, Alemanian, Holandan eta Erresuma Batuan autopistak dohain dira. Bilbotik Donos-



<<Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitezke gizakiok?>>

tiara autopistaz joatea 6,85 euro dira. Zergatik? Hobeagoa al da gure “superpista” beraien autopistak baino? Erosketa ahalmen handiagoa al dugu guk? Ez dut uler-tzen zergatik ordaindu behar den A-8 autopista. Horregatik uste dut, A-8aren kasuan behintzat, Europako herri hauen adibidea jarraitu beharko genukeela.

*Borja Etxabe*

# Kalegats

## Euskal Letren Agerkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**Euskal Idazleen Elkarte**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88

# ORDUKO VIETNAMEKO GUDA: GAURKOA

**Azkenak, amerikarrak. Lehenago, frantsesak, ingelesak, japoniarrak... Aspaldian, mongolak, txamak, jemerrak, txinatarrak... Guztiekin borrokatu. Guztiak gailendu.**

*58.183 amerikar soldadu hil edota desagertu ziren borroketan, 223.748 hego vietnamdar, Vietcong eta Ipar Vietnameko hildakoak milioi bat baino gehiago. Eta lau bat milioi zibil (populazioaren %10) zauritu edota hilik suertatu, gehienak iparraldekoak, amerikarrek eragindako bonbardaketak zirela eta.*

**A** lde desmilitarizatu. 1954. eta 1975. urteen artean Ben Hai ibaiak Vietnameko Errepublik (hegoaldekoa) eta Vietnameko Errepublika Demokratikoa (iparraldekoa) banatzeko balio izan zuen. Ibai bazter banatan zabaldua-ko eremuari alde desmilitarizatu esaten zitzaion. Izen hori hartu bazuen ere, munduko alderik militarizatuena izan zen gerran. Quang Tri, The Rockpile, Khe Sanh, Lang Vay eta Hamburger Hill orduko telebistako programetan amerikar etxe askoren hotzikara eragin zuten izen batzuk baino ez dira.

1954. urtean, Ho Chi Minh-en Gobernuak armistizio bat sinatu zuen Ginebran Frantziako Gobernuarekin; adostutako puntuetan Ben Hai ibaiaren inguruan alde desmilitarizatu egitea zen. Akordioak argi eta garbi esaten zuen egindako banaketa aldi baterakoa izango zela, baina hitzak ibaiak eraman zituen, eta 1956an egin behar izan zituzten hauteskundeak bertan behera gelditu ziren eta Vietnam bi estatutan eta bi ideologiatan gelditu zen banaturik: iparraldekoa komunista eta hegoaldekoa katolikoa eta antikomunista zen Nago Dinh Diem presidentearen agindupean.

**Anaien arteko guda.** Hegoaldeko askapen-mugimenduaren aldeko kanpaina 1959. urtean hasi zuten iparraldekoek. Ho Chi Minh ibilbidea -frantsesen aurkako gudan oihanean barna jangaiak eta armak iparralde-

1964. urtean ipar vietnamdarrek tropak infiltratu zituzten Hego Vietnamen. Eta 1965eko hasieran, Saigoneko gobernuaren egoera kaotikoa zen: hilero bi mila soldaduk desertatu, eta astero hiriburu bat galtzen zuten. Ejertzitokoak Hue eta Danang-etik alde egiteko presteuden, eta Hego Vietnameko erdialdea jaustear zegoen. Gutxi falta zen amerikarrek egoera “zuzentzeko”.

**Orduko guda aitzakia.** Amerikar gobernuak 1960ko hasieran bidali zituen lehenengo destakamenduak Vietnameko hegoaldera. Lydon Johnsonek honako hitzak esan zituen handik urte gutxira burutuko zuten triskantza zuritzeko: “*Horrelako herrialde bat noraezean joaten baldin bada bere askatasunari eutsi ezin diolako, zer gertatuko da ondoko herrialde txiki-kin?*” Orduko amerikarren helburua (Iraken bezala) demokrazia zabaltzea, eta askatasunaren alde egitea izan zen. Baina benetako arrazoia komunismoari hortzak erakustea izan zen. 1964ko abuztuan **Tonkin**-eko golkoaren gorabeherak erabakigarriak izan ziren Vietnameneko gudari hasiera emateko. **Maddox** eta **Turner** izeneko gerrauntziek salatu egin zuten Vietnameko iparraldeko kos-



<<Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester????????gaitzke gizakiok?>>

tik hegoaldera egindako bidea- handitu egin zuten eta Hanoiko gobernuak NAF (Nazio Askapen Frontea) osatu zuen, gerotxoago, Vietcong (Vietnameko komunistak) izenarekin ezagutuko zena. Soldadu amerikarrek “Charlie” esaten zieten Vietcongekoei.

tan nabigatzen zeudela izandako eraso. Harrez geroztik, Johnson lehen-dakariak aginduta, amerikarrak etengabe aritu ziren Ipar Vietnameko populazioaren aurka. Operazio batean bi hegazkin galdu zituzten, eta hauetako baten pilotua (Everet Alvarez) guda honen lehenengo atxilotua izan zen. Handik egun gutxitara, Amerikako kongresuak laguntza osoa eman zion Johnson presidenteari edozein neurri hartzeko, eta 1973.

**Zirt edo zart egiteko ordua.** 1968ko urtarrilaren 21an, iparraldeko tropek alde desmilitarizatuan eta Laoseko mugatik hurbil zegoen Khe Sanh izeneko base-militarra eraso egin zuten. Borrokaldi hau oso garrantzitsua izan zen Vietnameko gudan: handik hamar egunetara Tet izeneko ofentsiba bultzatzeko, eta amerikarrek arreta galtzeko, ondo pentsaturiko trikimailua izan zen. Urtarrilaren 31ko gauean, herria Ilargiaren Urte-

Ofentsiba horretan mila bat amerikar eta bi mila hego vietnamdar hil ziren. Vietcongeko hildakoak, hamar bat aldiz gehiago izan ziren: 32.000 guztira. Aste bete lehenago Khe Sanheko gatazkan, bostehun amerikar eta hamar mila ipar vietnamdar zendu ziren.

**Lur azpiko tunelak.** Alde desmilitarizatutik oso gertu Vinh Moc dago. Bertako biztanleak ikusi zutenean



<<Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitzke gizakiok?Energia zke gizakiok?Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitzke gizakiok?>>

urtera arte erabaki horretaz baliatu ziren orduko presidentek nahi izan zutena egiteko. 1966an Washingtoneko mandatarien hiztegiak honako hitzak baino ez zituen ezagutzen: "baketzea", "arakatu eta txikitu" eta "tiro egiteko aukera".

Vietnameko gudan egindakoa legitimatzeke amerikarrek Australia, Zelanda Berria, Hego Korea, Filipinak eta Tailandiako gobernuen onepena izan zuten. "Mundu libreko indar militarrek" izendatu zituzten amerikarrek orduko aliatuak. Australiak bidali zuen soldadu kopururik handiena: 46.852. Hauetatik, 496 hil egin ziren.

berria ospatzen zegoela, Vietcongekoek ehun hiri baino gehiagotan Tet ofentsiba gauzatu zuten; EEBeK Saigonen zuten enbaxada ere euren kontrolpean gelditu zen; hori dena telebistako kamaren aurrean.

Khe Sanhen ustekabeen harrapatutako hego-vietnamdarrek eta amerikarrek –dirudienez, zerbitzu sekretu amerikarrek oker handia egin zuten– emandako erantzunak kalte handia eragin zien Vietcongekoei eta populazio zibilarri. Vietcongekoek borroka galdu bazuten ere, Tet izeneko ofentsiba arrakastatsua izan zen eurentzat: handik aurrera gudaren kaltea janezina izan zen amerikarrentzat.

euren etxekoek ezer gutxi lagun ziezaietela bonben aurrean, lurra zulatzen hasi ziren. Familia askok tuneletan bizi, eta amestu zuten; hamazazpi ume jaio ziren lur azpiko erditze-geletan. Guk bertan jaio-tako bat ezagutzeko aukera izan genuen: Ti zuen izena. Berak lagundu zigun eskuargia eskuan, lur azpiko zoko-mokoak arakatzeko. Vinh Moceko tunelek hiru maila zituzten: sakonena hogeita hamahiru metro-ra zegoen; azalekoena hamabira. Hiruren bat pertsona bizi omen ziren, eta labirintoetan sukaldeak, sendatzeko gela, logelak... zituzten. Emandako eskupekoa eskertzeko

Tik ezin izan zuen hitzez adierazi: orduko bonbek gormutu utzi zuten. Dena den, bere irribarrea nahikoa izan zen orduko jaio berriaren mainak irudikatzen. Tunelek behin baino gehiagotan pairatu behar izan zuten bonben metraila; halarik ere, "zulatze izeneko bonbak" omen ziren kalte egiteko ahalmena zuten bakarrak.

Ho Chi Minhetik (lehengo Saigon hiriburutik) hurbil, aldiz, Cu Chiko tunelak daude. Hauek lehenagokoak dira. Hauek Vietminh-ekoek egin zituzten (1940.etik 1965.era arte)

soldaduek "tuneletako arratoia" zuten izena. Borrokaldi hauetan amerikarrek hildako asko izan zuten. Bertan bizi izaten ziren 16.000 pertsonetatik 6.000k bakarrik lortu zuten bizirik irteeta.

**Nixonen eskola.** Richard Nixon hautakundeak irabazteko Vietnameko gerraz baliatu zen. 1969ko uztailean, Nixonek bultzatutako "ezkutuko plana" zabaldu zuten: Asiako nazioei "autosufizienteak" izateko eskatzen zieten defentsa kontutan. Kontuak kontu, gezurrak gezur, praktikan

tu zuten mundu osoan. Kent-eko (Ohio) unibertsitatean egindako manifestazio baketsu batean lau manifestari hil zituzten poliziek. Barrakoietan, kuarteletan eta espetxeetan sortutako taldeak eta leloak zabaltzen joan ziren: "Soldadua, nire soldadua, egia esango dizut: ejertzittoa kaka zaharra da!". Gudak sortutako zauriak sukar handia eragin zuten EEBBko gizartean.

1972ko udaberrian, ipar vietnandarrek erasora jo zuten paralelo 17tik; horren aurrean amerikarrek bonbardaketak areagotu, eta minak



<<Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitzke gizakiok?Energia zke gizakiok?Energia e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitzke gizakiok?>>

frantsesen aurka borrokatzen. Tet izeneko ofentsiban Cu Chiko tunelek garrantzi handia izan zuten Saigonen kontra egiteko. Amerikarrek era guztietako trikimailuak erabili zituzten tunelak topatzeko: batzuetan, artzain-txakurrak ezkutuko atakak eta gerrillariak aurkitzeko. Vietcongekoak, horretaz jabeturik, amerikarren arropa janzen, eta euren xaboiak garbitzen hasi ziren txakurrak nahasteko. Besteetan, lur azpiko pasabideetan sartzen ahalegintzen ziren amerikarrak. Horrelako

guztiz kontrakoa egin zuten: 1969ko apirilean, ordura arteko soldadu amerikar kopurua gaintzea lortu zuten (543.4000). Urte berean, isilpean, Kanbodiako eskualde asko bonbardatu zituzten, eta hurrengo urtean infanteria unitateak sartu. Ipar Vietnamekoek, jemer gorriek lagunduta, Kanbodiako lurretan aurrera egitea lortu zuten, eta 1970.ean herriaren erdia kontrolpean zuten.

Bitartean, Vietnameko gudaren aurkako mugimenduek indarra har-

ipini zituzten kaietan. Haiphong eta Hanoi "gabonetako bonbardaketak" Ipar Vietnamekoek amore emateko pentsatuta baldin bazeuden ere, 1973ko urtarrilaren 27an Parisen sinatutako bake akordioan EEBBek, Ipar Vietnamekoek, Hego Vietnamekoek eta Vietcongekoek su-etena sinatu zuten. Horrek amerikar tropen aldentzea eta 590 amerikar preso askatzea ekarri zituen.

**Gudaren azken astinduak.** CIAko agente eta teknikari batzuk kendu-

ta, amerikar arrastorik ez zegoen Vietnamen. Halarik ere, gudak, artean, bere garroak zabalik zituen bertakoen arteko odola zurrupatzeko.

1975eko urtarrilean Ipar Vietnamekoak gogor saiatu ziren: artilleria astuna eta tankeak erabili zituzten ordura arte amerikarrekin bat egindako hego vietnamdarren aurka. Hegoaldeko destakamendu askok hanka egin zuten hegoalderantz, milaka eta milaka zibilek lagunduta. Hué, Danang, Quy Nhon, Nha Trang tirorik egin gabe izan ziren menperatuak.



lehenagoko orduetan, EEBBetako enbaxadako teilatutik azken amerikarrek ospa egin zuten helikopteroz itsas kostatik hurbil itxaroten zeuden itsasontzietara. Horrelaxe bukatu zen

hartu egindakoa; ez dira jabetu, antza, 66.000.000 litro produktu-kimikoa zabaldu zutenik.

Hauexek dira bertako batzuen testigantzak: “Kolare asko izan genituen aukeran: laranja zabalduena izan zen, baina urdina eta zuria ere izan genituen”; “Hasiera batean laino edota lanbroa zelako ustea nuen, baina ikusi nituenean eguzkiaren printzak, momentuan jabetu nintzen ezin zitekeela lainorik izan; gerotxoago esan zidaten toxikoa zela”; “Euren taktika begi-bistakoa zen: toxikoak erabiltzen zituzten zuhaitzak botatzeko,



<<Energia e????????seztatu ere, eraldatu bester????????gaitezke gizakiok?Energia zke gizakiok?Energia e????????seztatu ere, eraldatu bester????????gaitezke gizakiok?>>

1967az geroztik boterean egondako Nguyen Van Thieu-k 1975eko apirilaren 21an bertan behera utzi bere kargua, eta alde egin zuen milioika dolar patrikan. Vietnam iparraldeko tropek aurrera egin zuten Saigonera heldu arte, eta 1975eko apirilaren 30ean tankeek Saigoneko Independentzia jauregiaren ateak (gaur egun, Batasunaren jauregia) bota zituzten. Duong Yan Minh jenerala, berrogeita bi ordutan lehendakaria, errenditu egin zen eta guda bukatutzat eman zuten. Amore eman baino

militar amerikarren esku hartzea hamarkada bat igaro ostean.

Garaipen egunean komunistek Saigon izena baztertu, eta Ho Chi Minh bataiatu zuten orduko hiriburua.

**Agente laranja.** Vietnameko gudan amerikarrek munduko substantziarik hilgarriena (dioxina) erabili zuten. Hogeita hamahiru urte igaro ostean egindako kaltea jaioberri askoren deformazioetan eta naturan nabaria bada ere, EEBBko gobernuak, oraindik, ez du aintzakotzat

gero eremu zabalak erretzeko napalma edota “alfonbra” izeneko bonbak erabili zituzten”; “Zabaldutako pozoiari aurre egiteko esku-oihalak erabiltzen genituen uretan bustita; urik ez genuenean txiza erabiltzen genuen”.

1.000.000 bat pertsona inguru hil zituen agente laranja. Hauetako, 15.000 umeak ziren.

Orduko bonbek bezala, gaurkoek eta biharkoek ere airean eskegitako eten-puntuak dirudite, inork puntu eta jarrai idatz dezan zain.



<<Energia e? e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitezke giza-kiok e???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitezke giza-kiok???????seztatu ere, eraldatu bester???????gaitezke giza-kiok?>>

# HUE HERENSUGEARREN GERRIA

**V**ietnamaeko taupadak kultur hiria Vietnameko poeta eta politikari gehienak bertakok dira. Hue ilunabarrean hasten dira eguna garbi eta feresko dagoenean. Orduan kaleetan loteria saltzaileak eta eskaleak irribarre monjeei eskupekoak edota jatekoa “gong” txoriak askatzeko sasoia. Merkatura joateko sasoia eta mangoak eta bananak jan, betela atsoek saltzen duten mastekatzeko Metatutako frutak asnazteko

an osatutako postala baino ez da. Oso bitxia izan da bertakoeekin egotea eta euren jokabideak ikustea. Eta gaintzeko leku askotan bezala amerikar musika, globalizazioa. Non ote dago guk etorri aurretik irudikatutako komunismoa? Gauean, afaltzen geundela neskaxo pilit etorri zaigu eta Vietnamen ederra postaletan erakutsi digu, baina bere bizimodua ez da horren polita. Hamabi urte ditu eta ez da eskolara joaten. Hotelaz aldatu

«Hala?????uten nola jende xehea egurrez?????bizi zengaraian Arantzibiatarrakbezalakorakbig?????ak zirela, eta borroka odoltsuaketa lisk?????n zirelabando eta leinuen artean»

momentua. Gerotxoago, eta tarte luze batean, kaleak ao dai zuriz sedazko brusa grdena praka zabal baten gainean pausatzen da hau ere sedazkoa. jantzitako neskaxoak Guztiek daramate ile beltza eta luzea gerri-raino. Gerotxoago desagertzen dira. Eskolara joaten diren nerabeak dira eta euren patxada Hueko erdigune-

gara eta hamar dolar ordaindu ditugu. Taberna bateko kamareroarekin politikaz aritu gara eta bertako asko txalupaz Amerikara joan ohi dira. Hemengo ulertzea ez da erreza. Txirorak kale bazterretan ikusten dira, umeak asko ez dira eskolara joaten

*Mugertza*



# PUBLIA mugalari

## GALDUTA

**I**nork ez zuen ikusten, eta ikusten zutenek, ez zuten begiratzen. Semaforora bi eskuekin heltzen zen agurea. Praketan pixa eginda zegoen. Lurrean, putzu batean, bere makila. Ez zuen begirada alaia, ez tristea, galdua baizik. Hiri erdian galdua zegoen Alejandro.

Egia esan, Alejandro, Donostiara etorri zen lehenengo egunetik egon zen galdua. Duela bost urte hil zen Pili, Alejandroren emaztea. Ordutik hasi zen Joxe Mari, Alejandroren semea, Alejandrori beraiekin Donostiara bizitzera joateko esaten, hobeto egongo zela, Endoia leku txarra zela adineko pertsona batentzat... Sei urte igaro ziren Alejandro amore eman zuen arte. Endoia utzi eta Donostira joan zen, eta Donostian, zahartzen hasi zen.

Izarraritz inguruetan ematen zuen goizeko bueltatxoa Anoetatik ematen zuen orain. Tabernan egiten zituen orduak telebista ikusteko erabiltzen zituen. Ardoa utzi eta Coca Cola edaten hasi zen, eta aste egunetan, arratsaldeko bostetan, hilobak colegiotik jasotzera joaten zen. Bukatu ziren belar mozketak, baratza etaazienda gorria zaintzea.



Semaforoan gertatutakoa eta gero, Monica kontratatu zuen Jose Marik. 27 urteko kolonbiarra. Monica arduratzen da orain hilobetaz. Berarekin ematen ditu orain Alejandrok Anoetatik bueltak. Biak besotik helduta, biak bakarrik, biak galdua.

*Borja Etxabe*

## ZURIZ

**E**zin izan dut. Ezin. Nola, ba, Fernandoren aurpegi ikusita. Egia esan, ez dut gau ona pasatu, eta beharbada nekeak ere izan du eragina.

Hamaiketarako prest nengoen, eta, hala ere, berandu iritsi naiz azkenean. Baina 20 minutuko atzerapena ere ez da hainbestekoa. Gainera, aitaren errua izan da, eta ez nirea, ni aspaldi prest nengoen eta. Prest edo, jantzita behintzat. 100 metro baino ez daude etxetik elizara, eta nik oinez joan nahi nuen, baina aitak ezetz eta ezetz. Osabak mercedesa behin utziko eta nola joango ginen, ba, oinez. Herrian bueltaka ibili gara, harro baino harroago bera eta lotsatu baino lotsatuago ni. Beko Kantoiko paretik pasatzean, han hasi da bozina jo eta jo. “Hi, Manuel, ikusten al duk, bizi guztian Mercedesik ez nuela nik gidatuko eta ikusten al duk”, eta barre, eta berriz ere bozina joka. Hori nahikoa ez, eta plazari buelta eman eta berriz ere Beko Kantoiko atean gelditu da. “Hi, Manuel, ikusten al duk nolako eserlekuak?

Larru-larruzkoak, hi, ikusten al dituk? Sentitzen diat ba, tokia sobran diagu baina hire ttartarrean joan behar ko duk, gaur alabaren eguna duk eta! Begira, begira egiok ondo, holako Mercedesik sekula ez duk-eta hain gertutik ikusiko!”.

Eta halako batean, beste hiruzpalau bueltaren ostean, atzera begiratu, eta eskutik hartuta, esan dit, “bueno, gure neska motza elizara eramateko ordua da”. Eta orduan konturatu naiz erabakiak ez zeukala atzera bueltarik. Zain edukiko nituela denak eliz atarian. Eta nik beste buelta bat emateko esan nahi nion aitari; edo aukeran hobeto, ez gelditzeko, aprobetxatzeko osabak behingogatik Mercedes utzi ziola. Benidormera joango ginela txikitan bezala, han eguzki eder bat izango genuela eta hondartzan etzango ginela beltz-beltz jarri arte. Edo zapaltzeko lasai azeragailua Madrileraino, gozatzeko ondo Mercedes lauzpabost orduan, eta han, Madrilan, hegazkina hartuko genuela; Kariberako bi

txartel neuzkala, eta han kokoa jango genuela eta ur gardenetan bainatu.

Baina aita gorra da guztiz, begi gogor erabatekoa. Garrasi egin diote nire begiek ispilutik, baina aitag ez du begiratu ispilura, eta ez die erantzun nire begiei. Hala ere, zer egin behar nuen, dena bertan behera utzi?

Plazara iritsi orduko ikusi dut Fernando. Ama gorbata ondo jartzen ari zitzaion, zerbait esaten, aholkuren bat ematen seguru asko, baina Fernandok ez zion kasurik egiten. Urduri zegoen; eskuineko oinak salatzen zuen, haren gora eta behera etengabeak. Hasperen egin du autoa ikusi duenean. Eta irribarre gero. Niri korapilo bat egin zait urdailean. Jendea ikusi dut multzoka, eta koloreak, milaka, gorriak, laranja, malbak. Mozorro festa batean sentitu naiz, eta bero jasangaitz bat sentitu dut masailetan.

Aitak autoa gelditu du, eta Fernandok irribarretsu ireki dit atea. Ez diot heldu hark luzatutako eskuari. Amarengana joan naiz korrika, besarkatzera. “Ederra zaude oso”, esan dit amak, eta musu eman dit. Gezurretan ari zen, badakit. Jarri didaten makillaje guztiak ere ez dizkit estali begi zuloak, eta errimela zertxobait zabaldua neukan. Baina amak beti ama. Hala ere, berehala konturatu da. Jakin du nire begietan irakurtzen. “Zalantzak normalak dira, baina hor barrura sartu orduko pasatuko zaizu”, esan dit goxo, zapiarekin betertzak garbitzen zizkidala. Barrura sartu dira denak. Eta Fernandok bizkarra ferekatu dit. “Bai polita zaudela!”, eta irribarre egin du. Ezin izan diot begietara begiratu.

Organoa entzun dugu orduan, eta aitak besoa eskaini dit. Mendelssohnen eztei kantuaeren erritmora mugitu ditugu oinak. Aldarea urruti zegoela iruditu zait, oso urruti.

Jende guztiak irribarrez agurtu gaitu pasaeran, eta niri gonbitolarria etorri zait. Ez dakit nola iritsi naizen alderaino. Eta argiak hasi dira, eta apaiza hitz egiten, eta nik erretaulako santu guztiak laino batean bezala ikusi ditut, denak mugitzen eta aldi berean hitz egiten, eta halako batean buru batzuk ikusi ditut goitik behera niri begira; apaizarena dut batez ere gogoan, eta ama ere ikusi dut egunkariarekin haize ematen eta “ondo zaude, txiki?” esaten. Izeba Manolik hankak goraka jarri dizkit eta txokolatezko goxoki bat eman dit. “Aurrera egiteko moduan?”, esan du orduan apaizak. Eta nik baietz esan diot. Ezin nuen besterik esan. Fernandok musu eman dit masailan. “Lasai, maitea, nerbioak dira; laster bukatuko da dena”. “Bukatu”, halaxe esan du, gure bizitzako egunik zoriontsuena izan behar zuena amesgaizto bat balitz bezala. Eta pena eman dit. Pena, maitasunak gainezka egin diolako begietatik eta masailak busti dizkiolako. Korrika alde egiteko gogoia etorri zait, benetan pentsatu baitut berak zerbait gehiago merezi duela. Inakiz ere gogoratu naiz, eta ostiral gauetako afariez, kontzertuez eta elkarrekin egiten genituen erokeriez. Baina hura bukatu zen. Fernando neukan orduan ondoan, “bai, nahi dut” esateko gogoz, nire ahotik entzuteko amorratzen. “Bai, behar dut” erantzun beharko nuke nik; behar dut Fernando bezalako gizon bat, behar dut barruan ostikoka ari zaidan horrentzako aita bat. Eta orduan, aitak besotik tira dit. “Erantzun, maitea”. “Zer?” dardaati bat besterik ez zait atera. “Nahi al duzu Fernando Arruabarrena senartzat?”, galdetu dit, osterita itxuraz, apaizak. Eta nik burua jiratu eta Fernandezekin egin dut topo. Ezin izan dut. Ezin.

*Maidor Ziaurriz*

***Euskal literaturaren erreferentzia nagusia***

**Hilero 45.000 bisita**

**[www.idazleak.org](http://www.idazleak.org)**



**Euskal Idazleen Elkartea**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA

Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88

## PLATER GRIS SAKONA

**A**ri da mahai gainean emakumea, irratiko ahotsari jaramon egin gabe. Hainbeste irauterik ez zuen espero, erosi zituenean. Itsusiak, baina platerak dira. Kopeta izerdiz bustita dauka, ez ordea jertsea ez berogailua kentzeko gogorik. Bosgarren platera mahai biribil gainean uzten, eta sutan dagoen lapikoaren tapa kentzen du. Lurrina usaindu, ez dago gaizki, sua itzali. Ilea ukitzean kizkurak desegiten ari zaizkiola nabaritzen du. Arnasa hartu eta

-prest dago!

oihua pasillora botatzen du, erantzunik gabe. Sandalia-pauso hotsak galtza motzetan jantzitako neska gazte bat ekartzen du sukaldera. Aldizkari bat dakar eskuartean, aldizkariaren azalean inbidia ematen duen irribarre zuri bat. Arrosa bizi koloreko kamiseta motza dauka soinean, hizki txinatar hori batzuk, goitik behera. Bekain depilatu berriak altxatzen ditu,

-hemen dio zure zortedun eguna asteazkena izango dela

esanez, txikle txuri txiki bat murtxikatuz. Mahai gainean egurrezko ohola, egurrezko oholaren gainean bi lapiko. Alabak ikusten ez duen irribarre ahulez

-ze ongi!

pentsatu eta esaten du amak. Rufus da inork aditzen ez duen irrati esatariaren izena. Iragarkiz betetako orriak pasaz, kuleroetako gomari tiraka bere lekuan jartzen ditu alabak. Amak

-esaiozu aitari etortzeko

esatean, haragitsuago nahi lituzkeen ezpainak okertzen ditu, eta sandalia-pausoz desgertzen da. Rufusek *Rain all over the sky* abestia jartzen du. Aproposa. Euriak ttu egiten du sukaldoko kristaletan. Ate hotsa eta gomazko pauso bustiak entzuten ditu.

-kxo...

esan, eta muxu emanez amaren masailari, begi gorriak makurtzen ditu ile luzedun mutil bustiak. Berriro. Ke usaina dakar. Amak dio

-kendu hori eta etorri bizkor

irabiatuz, irabiatuz. Pauso bustiak sukaldetik urrun-



tzen dira, bitartean ahots fin batek "over the sky..." esaten du. Ipurdian harramazka eginez sartzen da, lodi, gizon bat. Lapikoetara hurbilduz

-patata purea

ikusi eta esaten du. Ogi puska bat ahoratzen du mahai gainetik, emakumeak sardexkak

eta labanak plater ondoetan jartzen dituen bitartean.

-norabait joan beharko dugu noizbait, ez?

esaten du ogia mamurtuz. Emakumeak baietz dio ezpainik ireki gabe. Gaseosa botila eramaten du hozkailutik mahai gainera. Kamiseta more bat sartzen da mutilaren soinean.

-zinean

erantzuten dio aitaren "non izan zarete?" galderari. Aspergarria zela, kaka bat, ez dakiela zein den filmaren izena.

-begira ama horrelako bat nahi dut, ikusten?

esanez sartzen da galtza motzetan neska. Amak baietz dio buruaz, bost edalontzi jartzen ditu. Dena prest. Eta txikia?

-banator!

dio ahots txiki batek, egongelatik, edo komunetik. Eserita daude denak neska txikia sartzen denerako. Lapikoak desestali, eta plastiko zuriko koilara handiaz patata-purea zerbitzatzen du amak plater grisetan. Beste lapikoan, saltsa marroi-gorriska artean, haragi puskak daude. Txerria? Txahala? Arkumea? pentsatzen du eta

-nik gutxi

dio txikiak, kasurik ez. Inork ez ditu Rufusen hitzak aditzen. Aitak telebistan ikusi berri duen esketxa kontaktzen die aho beteaz, barre artean. Neska gazteak aipatzen du bere lagun batek titiak operatuko dituela, amak "ai ama" dio. Mutilak esa-

ten du historiako azterketarik ez dela izango, irakaslea gaixorik dagoelako, depresioak jota. Amak haragia gazi xamar dagoela pentsatzen du, ez du ezer esaten. Neska txikiak haragi zatiak mugitzen ditu plateraren alde batetik bestera.



## UDAKO OPORRAK

**A**zkenean iritsi da eguna! Zenbat denbora noiz iritsiko zain eta zenbat ilusio eta amets egun zorionsu honen kontura. Aireportuan daude, urduri, eta nora jo behar duten galdetu ondoren dagoien harrerarantz abiatu dira. Han neska polit batek billeteak eskatu dizkie. Aitak eskua luzatuz poltsikoan harrapatu duena eskaini dio harreragileari eta hirurak zain gelditu dira. Goizeko seiak dira eta aurpegietan goiz jaitzearen seinaleak nabariak dira. Eskuetan dituzten maleta astunak han utzi eta aireportuko kafetegian kafe-txo bat hartzeko desiratzen daude.

- Barkatu, baina hauek ez dira billeteak!- esaten du harreragileak, bere lanerako jarria eraman behar duen irribarrea ahoan mantenduz.

- Nola ezetz? - erantzuten du amak, begirada hilkor batez aita begiratzuz.

- Nik... hartu dut zuk esan didazuna- desenkusatu da aita, datorrena ikusita urduritzen hasia.

- Hauek hoteleko erreserbak dira eta agentziarekin sinatu duzuen kontratua, baina hemen ez daude hegazkinerako billeteak.

- Nik maletak egiten nuen bitartean, zer esan dizut?- amak

- Pixa egin nahi dut!-esaten du supituki Mikelek, orain arte bere talaiatik gora begira gurasoen liskarra ikusten isil-isilik agoantatzen egon dena.

- Ixo! Zuri ere momentu onenetan etortzen zaizkizu txizalarriak. Badirudi apropos egiten duzula- amaren ahotsa ozenki entzuten da.

Besteak, denak, isildu dira. Amak ez du sinisten gertatzen ari dena. Bere oporretako ametsa, astebete etxetik kanpo ezer egin gabe egoteko, bere begi aurrean desgertzen ari dela sumatzen du. Eta dena, bere gizon alproja horrengatik. Hori bakarra egin behar zuen eta hori ere ez. Beti bezala!

- Barkatu, baina jendea zain dago eta zuen arazotxoaz argitzen duzuen bitartean, alderatu zaitezke beste bezeroekin jarraitzeko?- harreragilearen aurpegian irribarrea lausotu da.

- Ama, mesedez, ezin dut gehiago agoantatu!- errepi-katzen du Mikelek aurpegi gorri- gorriaz.

Amak atzera begiratzuten du eta izugarritzko jende ilara bat ikusi du, orain aurrenekoz.

- Eta hauek denak oporretara eta gu zure arduragabetasunagatik etxean gelditu behar?- ama bere onetik ateratzen ari da: sumendia dirudi.

Aita txuri- txuri dago. Ez du ezer esaten. Maletak hartu ditu eta harreratik aldendu da. Han daude hirurak, bakoitzaren aurpegian egoera desberdinen espresioak agerian eta bat-batean...

- Ama!

- ZER???

Mikel negarrez dago eta bere izterretik pixa bero-berodario. Putzu txiki bat egin du aireportuko zoruan.

*Lupe Lekuona*

# Haunditu publia



Amillaga 1 - 6. Pabiloia  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 27 41  
Faxa: 943 76 49 05  
E-maila: k3@k-3.es

## ● IPUIN LABURRAK ●

1

Kolorezko lapitzak hartuz, mundu berri bat pintatzeari ekin zion: urrearen koloreaz jantzi zuen DIN A-4 tamainako orria; hori laua zen, ertzarik gabea. *Egunsentia* izenburupean sinatu zuen.

Bihotzean zirauen itsaropenaren islada baino ez zen.

2

Ilargi bete bi ikusi zituen adar artean. Sekulako aurkikuntza egin zuelakoan, haizearen alde banatara harrotu zuen bere poza.

Hontzaren begiak baino ez ziren, ordea.

3

Mailuak iltzea ehortzi zuen zerraldoan.

4

Beltza zen, lutuarena, Parker jaunaren negarra. Betidanik gorrotatu zuen idazlumak halako eskutitzak idatzi beharra.

5

Lapurtuko ote zioten beldur, gela ilun batean giltzatu zuen emaztearen irria.

Argirik ezean, ordea, zimeldu egin zitzaion lorea.

6

Bere bihotzak gauza guztien gainetik maite zuenaren eskutitza irakuri zuen. Bertan, *ezetza* baino ez zuen aurkitu. Amorruek subajura bota zuen gutuna, nongo sugarretan erre zen.

Orduz geroztik, su-hautsez lanbrotuta dauka bihotza.

7

Bazekien hitz goxoen egarri zen edalontzi zela Venusen pareko emakume hura; gainera, kantua gustuko zuela.

Horrexegatik, kabia egin zuen ahoan eta karnaba bat jarri bertan.

Gaur egun, senar-emazteak dira.

8

Urrutira, iluntasunaren erdi-erdian, erdi irekita ikusi zuen ate bat. Haruntz korri egin zuen hiltzaileak.

Ilargia zen.

9

Adar artean trabatu zen oihu lazgarri baten oihartzuna, eta zuhaitza astindu.

Duela urtebete urkatu zuten bertan.

10

Elurrak estali zuen, hil-oihala bailitzan.

Udaberriak, ordea, berpiztu: alargunak negar-malkoz ureztatu zituen loreak.

11

Oroimenaren magalean sastraka baino ez zuen aurkitu!

12

Zerua urdinegia zela -esan zuten aho batez-; urdinegia, erreala izateko, sinesgaitza.

Horrexegatik, beren pelukak hartu eta gora bota zituzten indar guztiz.

Bapatean, hodeiz jantzi zen ortzea.



## 13

Herri txiki bateko bazterrik ezkutuenean bazen borda zatar bat, non agure batek hitzak lantzen zituen.

Goldeak ildaskatutako lurra zirudien aurpegiak; urjauzi izoztuaren antzeko zen bere bizar luzea; herdoilak jotako igitaia, berriz, sudurra; begiak, bi edalontzi lokaztuak; eta ahoa, iturri agorra.

Harrien gogortasuna zuten hitzak lantzen zituen, ertzak ahalik eta gehien leuntzen, inor zauziritu ez zedin.

## 14

Pintzelak hartu zituen eta lausodura artean: ilargi bete bi pintatu.

Pintorearenak ziren, izuaren alde banatara margotutako begiak!

## 15

Idazluma estilografikoaren boz lutoa udinez jantzi zen.

Harridurak, hartzailearen betarrea goldatu zuen, ez baitzuen sekula pentsatu samina urdinez idatz zitekeenik.

## 16

Udazkenak su eman zion basoari.

Haiek sugarrak zuhaitzetan!

## 17

Begiak itxi zituen, eta, munduaz bestalde, lasaitasunaren harri sendoak zutabetzat hartuz, etxe bat eraiki zuen. Bertan sartu eta, inor sar ez zedin, atea giltzatu zuen.

Begiak zabaldu zituen. Baina orduan, oi zoritxarra!, giltza etxe barruan ahaztu zuela oroitzean!



## 18

Inoiz ez zuen halako negurik eza-gutu. Sekulakoak ziren izotz-burruntziak; izutu egin zen, otsoaren letaginak zirela pentsatzeraino.

Beldurrak jota, ardiak artilezko jertse bat egin zion jaoberriari.

## 19

Tinta txinatarrak belztu zuen DIN A-4 tamainako orria. Erdian, berriz, ipurtargiarena zirudien puntu hori bat ipini zuen.

-Zer da hori? -galdetu zuen alabak.

Eta pintoreak:

-Gaua bezain iluna den etsipena zulatzen duen irria, laztana. Zurea da.

## 20

Zuhaitzetara jo zuten, eta bertan biluztu.

Adar artean, ordea, begi bat antzeman zuten zelatan. Ilargiarena zen.

Salatuko zituelakoan, jantzi eta alde egin zuten.

## 21

Zuriz pintatu zuen gaua.

Eroetxeko kaiola baino ez zen.

## 22

Haserrearen txinpartek ezpainak erre zizkion. Erreduraren ondorioz, ulerkaitzak gertatu ziren hitzak.

## 23

Emandako belarrondokoaren oihartzuna trabatu zitzaion bihotzean.

Damua!

24

Oroimena zapuztu zion orainak. Sinesgogor, buruaz ezetz zioen bitartean, ispiluaz bestalde malkoz busti zitzaizkion begiak metro t'erdira-edo zituen begiak argirik gabeko kriseilu hautsezatu bi baino ez zirela ohartzean.

Duela zortzi urte itsutu zen.

25

-Zertarako irakurri, bihar ahaztu behar bazait?

Eta oihartzunak:

-Zertarako bizi, bihar hil behar baduzu?

26

Lorategiko arrosak orriuldu zituen; eta, haizagailua zela medio, lore-hostoak harrotu.

Sugar gorritz bete zen zerua.

27

Garrasi batek gaua pitzatu zuen, ilargi betearena zen zuloa egite-raino.

28

Adar artetik, eguzkiari abestu zion txoriak.

Bapatean, ordea, lumak harrotu zitzaizkion; mokoak okertu; eta txioak irrist egin malko baten modura. Odolaren gorriak paparra bustia zion.

Ehiztari-kumeak harro hartu zuen.

29

Euria omen zuen gustuko; hura eta ez beste inor bere konfiantzazko lagunik handiena. Hark garbitzen omen zion arima, hark uxatzen bihotz-taupadak galduarazten zizkion lanbroa.



Labankada batez hil eta ehortzi bazuten ere, egun gutxi barru euriak atzaparka egin zion lurra-ri: erotzat zeukatenaren desagerpenaren arrazoia salatuz.

30

Gauaren iluntasunak ehortziko ote zuen beldur, dardarak astindu zuen, zurrunbiloak hostoa bezala.

Arrazoa: adarrek ilargia ebaki zioten.

31

-Oraina ez da nahi genukeen bezain laua -esan zuen tonu goibel batez-. Oroimenaren ertzek urratuko baitute.

32

Sekulako zoko-usaina zegoen. Jasenezina! Aspalditik giltzaz itxita zeukan bihotza.

33

Bospasei ipurtargik zulatu zuten gaua.

Hurbiltzean, ordea, herri txiki bateko farolak baino ez ziren.

34

Hilarriaren kolorekoa zeukan aurpegia; horma tzarren pitzadurak ziruditen haren zimurrek; erreka agorra, ahoa; ilargi bete lanbrotuak, berriz, begiak. Herriko lurperatzailea zen.

35

Burutik ez zegoela ondo zioen jendeak.

Urez bete zuen edalontzia, eta bertan sartu idazluma. Eskutitzak kalamar-tintaz sinatuko zituela esan zuen.



36

Zabalik zegoen leihoa.

Kukurrukuak egunsentia zerratu zuen.

Zerrautsez bete zitzaion logela.

37

Zer ote zen hilda egotea, galderak burmuinak mailukatu zizkion denbora luzeska batez.

Zerraldo bat erosi zuen; eta, berpentsatu gabe, bertan etzan.

Hilda zegoela amestu zuen.

Zimurturik berpiztu zen.

38

Hautsita zegoen leihoko kristala.

Kuriositatea akuilu, sartu egin zen haizea. Kristalarekin urratzean, ordea, intziri batek atzaparka egin zion gelari.

39

Zerraldoa erosi zuten bezain laster, argia jarri zuten bertan. Bai baitzekiten, Bernardo zenari beldurra ematen ziola ilunak.

40

Triste dago, negar-malkotan bustia, arnasaren hegoak lumatu zizkietenetik.

41

Argiak egunsentia urratu orduko, negar-zotinka batean hasi ziren haizearen alde banatara zeuden leihoak.

Hormartarteka zitzatela oihukatu zuten, munduak izuten zituella-eta.

42

Poz-irrintzi batean jauzi egin zuen haizeak adarrez adar, eta txio egin.

Aspaldian ez bezala, oroimena trabatu zen bertan.

43

Lau behatz gupigabe: haizearen alde banak sekretua aletu zuen!

44

Hitzak hartu zituen; eta mailukada bat eman honi, aizkorakada bat harri, labankada bat harunzkoari.

Herrenka batean itzuli zen poema, zauriz jositako gudaria bailitzan.

45

Izuak jota, dardara bildu eta, elurrak salatuko zuelakoan, ihesari uko egin zion.

Hotzak jota hil zen.

46

Urduri zegoen ilargia, zehozer galdu balu bezala.

Izara artean, berriz, bi izar: ilar-giari begira.

47


Idiak prestatu zituen, eta ametsez bete gurdia.

Ilargiruntz zihoan zilarrezko bideari jarraitu zion, baikor.

48

Begiak sutan zituela, guraizeak hartu eta zeruertza ebaki zuen.

Lurra baino ez zegoela, oihukatu zuen ateoak.



49

Hanka-puntetan hurbildu zen haizea. Basoan barrena kuxkuxean, hostoek zer esango.

50

Ilargi-igitaiaren beldur, ihes egin zuen eguzkiak.

Mendiaz bestalde jauzi egin zuen.

51

Hura errekaaren amorrua!, hura ernegu-palasta amuen jolasak zuhaitzen gonapeko lasaitasuna zipristindu zuenean.

52

Buru-hezurra desehortzi zuen, eta bi arrosa landatu begi-hutsunetan.

Irria berpiztu zen alargunaren ahoan. Begirada hark maitemindu omen zuen.

53

Hil-oihalak bazuela kolore beltzik esan zuen: gaua!

Beltzez pintatu zuen mihisea.



54

Zuhaitz-adarren oparitasuna boro-bildu zuten elur-malutek.

Gogotik miatzatu zuen izozkia eguzkiak.

55

Nekearen nekeaz, orduak izerdi-patsetan zirela, azkenean gainditu zuen mendiaren harrotasuna.

Garailearen oihua amildu zen gutxira, harri tzarra bailitzan.

56

-Kontuz gero –esan zion amak-, bipiak jotako ohol gainean oinak jartzearekin.

• • •

Ohetik, kristalaz bestalde ortze izartua ikusi zuen. Bapatean, izuak jeikiarazi zuen; eta korri egin zuen gurasoen logelaruntz.

-Zer duzu? –galdetu zuen amak, aztoratuta.

-Bipiak jota ikusi dut zerua –esan zuen alabatsoak, arnastetuka-. Gainera ereriko ote zaidan beldur naiz. (Bost urte baino ez zituen.)

57

Aizkorak eguzki-printzak ebaki zituenean, hotzikarak alderik alde zeharkatu zituen hostoak.

58

Gauak atea itxi bazuen ere, ilargiak ez zuen amore eman. Behatxulotik begira geratu zen, izarapeko jolasak noiz zipristinduko zain.



59

Armiarma-sarek apaindua zegoen etxe guztia. Eskailera-mailen intzioria entzun orduko, bakardadearen kirats okagarriak sudurrak itsiarazi zizkien.

Logelan aurkitu zuten. Usteltzen hasita zegoen gajoa.

60

Hegoak zabaldu zituen irriak, itsaslabarra gainditu ahal izateko modurik ikusi baitzuen: erromako zubia.

Ondoezak jota erori zen, ordea, galtzada-harri bakar bat ere ikusi ez zuenean.

61

Adar biko zuhaitzen fruituetatik jan zuten hildakoek.

62

Pintzelak eta mihisea erosi zituen Neguak. Irudimena izoztu zitzaion, ordea.

Erromesaldian barrena, tresna haiekin topo egin zuen Udaberriak. Pozez gainezka, loreak pintatu zituen, zein baino zein ederragoak.

63

Ilunabarra zen. Gutxira, horiz blaitu zen itsasoa.

Eguzkia ito omen zen.

64

Milaka kristal-pusketen burrunbak, urjauzia bailitzan, mendizaleen elkarrizketa suntsitu zuen.

65

Elurrak, hil-oihala bailitzan, gaua estali zuen.

-Baina... nor izango ote da ordu hauetan? -galdetu zuen, beldurraren beldurrez dardarka aldaba-hotsa entzun orduko.

-Ez zaitez kezka -senarrak, izarrei tira eginez-; haizea izango da, gauean izoztuko duen beldur.

66

-Baina..., nondik atera dituzu luma horiek?! -aitonak, kezkatu.

-Oiloei kendu dizkiet -bost urteko bilobak.

-Baina..., zertarako?! -haserre samar.

-Hegan egiteko -haurrak, irribartsu.

Hasperen egin zuen aitonak:

-Oilok ez dute hegan egiten.

67

Onomatopeien kaiolan:

-Miau! Miau!

-Muuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuuu!

-Au-au!, au-au!, au-au!

-Miauuuuuuuu!

-Ostia!

68

Kezk(o)a:

-Zerk kezkatzen zaitu?

-ezkatuko ote naizen kezkak.



69

-Garbitu ezazu bihotza noiz-behinka.

-Bihotza garbitu, zertarako?

-Zerorren etxean arrotz senti ez zaitez.

70

Negar-intziriak oihana ebaki zuen.

Koroa, oroimenaren apaletako batean hautsak jandako garaikurra baino ez zen. Begirada lanbrotua zeukan; ihartutako lastoz egindakoa zirudien kalparrak; eta hortzik gabea. Halaxe utzi zuen zahardadeak, zeinek erregetzaren eremu zabaletatik uxatu zuen. Bakardadearen arantz artean bihurritu zitzaion arnas-haria lehoi zaharrari.

71

Ingude gainean jarri zituen hitzak; eta zorroztu ditezen:

Mailuaz jo, gogotik.

72

Halakoa zen haurdunaldirako zeukan gogoa, uda-ortzean ere: hegazkinak beren lorratzekin, espermatozoideak iruditu zitzaizkiola, obulutzat zeukan eguzkia bera zulatu asmoz.

73

Alaitasunak berpiztutako pianoaren noten antzekoak ziren bere pauso-hotsak.

Elurretan erein zuen itsaropena: pausoz pauso, letraz letra, oinatzek paper-orria zipristindu zuten, hautsak hauts, idazmakina zaharrak artean bizirik ziruela gogorarazi izan nahi baitzion munduari.

## BETAURREKO BELTZAK

**B**runton Kalean egin nuen eskumatara, Easter Roaden behera. Zirkulazio handiko ordu haietan hura izaten zen biderik onena; zertxobait luzeagoa, baina lasaiagoa. Asteko zereginen pisua neraman soinean, ordenagailua oraindik begitaratean txertatuta. Kanpoan ostiral gaua arnas zitezkeen; afaritarako azken erosketen ordu haietan, likore dendak ohi baino beteago eta argiz blai ageri ziren beren ardo eta garagardoen eskaintza errotuluekin; *takeaway*-en kanpoaldean gauerako irrikaz sukaldean ibiltzeko astirik ez zutenen ilarak ikus zitezkeen, eta pubetako ateetatik alkoholez gorrituriko tatuaiadunen aurpegiak ageri

Betaurreko ilunak zaramatzan neskak, eta luzea zuen adatsa, ia gerrirainokoa. Eskerrak emanaz aurpegira begiratu nionean metakrilato beltzaren opakotasunarekin egin nuen topo. Ezpainekin irribarrea bueltatu zidan, eta ezpainkera polita zuen. Nik baina, begien hutsunea sumatu nuen batez ere. Kuriosoa zen betaurreko ilun haien efektua, ironikoa. Zeramatzanak pribatutasuna eta anonimotasuna bilatuko zituen ziurrenik, munduarekiko babesa beharbada; hari begira zegoenak (nik), ostera, misterioa zekusan. Jakin-minaren arra piztu zidaten, eta automatikoki arreta emakumean jarri nuen. Ez dakit neskaren anteojuak, txanda aurreko asperdura, ala aurre-



ziren. Hasiak izango ziren honezkero barra osteko neskei fanfarrokeriak kontatzen. Jende ugari zebilen kaleetan. Home sweet home! pentsatu nuen nik, akabo aste honetakoak!

Frigorifiko hutsaren irudiak gerarazi ninduen. Bizikleta kanpoan lotu eta supermerkatuko korridore argiztatuetan murgildu nintzen. Buelta batzuk eman ondoren brokoli apur bat eta erdi prezioan zegoen italiar gazta urdin pusketa bat hartuta abiatu nintzen ordain-kutxara. Ez nuen gehiagorik behar konplikaziorik gabeko otordu bakartia antolatzeke. Alkohol, jaki eta gutiziz beteriko gurditxoan ilara luzean paratu nintzen. Aurreko neskak, gauza pareta baino ez nuela ikusita, bere aurrean pasatzeko keinua egin zidan besoa luzatuz, eskuarekin bidea erakutsiz. Supermerkatuko ilaran aurretik pasatzen uztea eskuzabaltasun keinu argia zela otu zitzaidan, pertsona atseginaren erakusgarri nabaria. Indibidualismo eta pazientzia ezaren lurralde haietan, dotore ageri zen keinu arrunt hark hartu zuen nire arreta.

tik pasatzen uzteko keinu txikiaren handitasuna izan ziren, baina horma ilunez haraindi joateko gogoia piztu zitzaidan. Xehetasun gehiago bilatu nahian aurpegira begiratu nion atzera ere; hazpegi asiarrak zituen, ekialde urrunekoak. Arropei begiratu nien ostean. Praka elastiko gorriak, larruzko jaka iluna eta bota beltzak; azazkalak ere gorriak. Jarrera gogorreko emakumearen janzkera, bizitza gogorra izan zuenarena, agian. Gauza bat argia zen, ez zen ekialde urruneko emakumearen janzkera. Kanpo itxurak eskein zezakeen irudi faltsuaz mesfidati eta gehiago bilatu nahiez, neskaren erosketei zuzendu nien begia. Ez nion guztiari erreparatu: ezaguna nuen Txileko botila ardoa (bost liberakoa), entsaladarako erabili ohi diren pataten poltsa bat, zenbait garbitasun produktu eta aurrez prestatuturiko jaki exotiko horietako errazio bat (munduko bazterren bateko jakiren baten bertsio britainiar azkarra). Pista gehiegirik ez.

Bere etxean sartu nintzen. Depresioak jota zegoela eta gaur gauean ardo botila bakarrik edanzen zuela pentsatu nuen; etxeko besaulkian malkoak betaurrekoen azpi-

tik irristatzen zaizkiola ardoa botilatik edaten imajinatu nuen. Dramatikoezia, alboratu nuen gero, eta betaurrekoak eramatearen arrazoaia begi-txindorra, konjuntibitisa, edo malko-guruinaren handituren bat izan zitezkeela asmatzeari ekin nion, eta ardoa kristal finezko kope-tan edango zuela bikotearekin kandelapeko afari goxoan, eta ostean, pasioz egingo ziotela maitasuna elkarri.

Pentsamenduotan murgilduta nengoela iritsi zitzaidan txanda. Betaurreko ilunetatik kutxazainaren maki-llaje gehiegiko begi eta ezpain zimurtuetara igaro nintzen. Ordaindu, eta alde egin aurretik, berriz begiratu nion minutu bi oparitu berri zizkidan andre hari; beste irribarre bat, burua arinki makurtu, eta erreberentzia erara eskerrak eman nizkion ostera ere. “You´re wellcome” erantzun zidan, berak ere irribarrez, eta dudarik gabe ekialde urrunekoa ez zen ahoskera britainiarrez. Eskumako begia harrapatu nion betaurrekoen aldamenetik. Ahoaz ez ezik, begiekin ere irribarre egin zuela ikusi nuen isur txikiz jantziriko begi-ertz hartan. Azalari eta janzkeri ez bezala, leuntasuna zerion irribarrearri, ez zuen gogortasun arrastorik.

Supermerkatuko Greta hartaz lehen baino gehiago jakin gabe hartu nuen kalerako bidea. Katea askatu, bizikleta gainera igo, eta hiriko trafikoa murgildu nintzen, instant bat lehenago buruan nituenak automatikoki ahaztuaz. Auto gidari zoroen beldur eta asfalto gaineko arriskuez ohartuta gidatzean jarri nituen zentzumen guztiak. Gauerako planik gabearen patxadaz hiria gurutzatu, eta gainerako bozina oiherduri jarraionik egin gabe sartu nintzen Admiralty kalean.



Portaleko atea zabaldu eta poltsak eskailera buruan paratu nituenean etorri zitzaizkidan gainera aste osoko lanaren nekea, sakelakoan nituen Jamieren zortzi dei galduen nagia, elastiko gorrien estutasuna, hirian bakarrik bizi zirenen desabantailak.

Lanpas osteko erritoak banan-banan beteaz, zapatak kendu, jaka ate ostean eskegi eta erantzungailuaren *playa* sakatu nituen etxera sartu eta lehenengo-lehenengo. Mezu interesgarrik ez: Jamieren mozkortzeko eskaintza

lotarako gonbite inplizituarekin, Camillen mezubako deia, eta aitaren *Lin, aita naiz* ohikoa. Zulik, hirugarreneko liburuzain erretiratuaren katuak, harrera egin zidan leihotik agure zahar baten konpainia bakarra izatea ere latza zela zioten bibote urdinuak mugituz, eta nagiak ateraz.

Bainu beroa hartuko nuen, erositako curry-a labean sartu eta, aspaldiko partez, liburu bat eskuartean nuela eseri. Ai, zigarroen plazerra! Ardoa, kopatxo bat baino ez; ez nuen biharamunekoak alkoholez izorratzeko asmorik, asteburua ondo aprobetxatu nahi nuen. Iluntasunera ohitzeke, betaurrekoak erantzi nituen ikusi ahal izateko. Benetan nekagarriak ziren hiriko autobusak ordu haietan, arnas kirastuz eta egun oso oihartzunez beteta. Bizikleta erabiltzen hasi behar nuen neuk ere, supermerkatuko neska kaskodunak bezala. Zuzen begiratzen ninduen, gero! Espainiarra zela esango nuke, Italiakoa akaso; gazta behintzat italiarra zeraman. Begiak, handiak zituen oso. Nork jakin, Greziakoa ere berdin.

**Araitz Garaita**

**Liburuez gozaten irakasteko**

**“Liburuen Xarma” bilduma**

**Liburu-dendetan salgai!**

**Etxean jaso nahi badituzu,** deitu Euskal Idazleen Elkartera: 943 27 69 99



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**Euskal Idazleen Elkartea**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88

## CITY

**I**on Trujillo goizean etxetik irten denean, bere ama konturatu da, gaur ere, gosaldu gabe eta presaka, abiatu dela eskailerak beheara.

Eguerdian ez da azaldu bazkaltzera. Bere anaia, bi urte zaharragoa, eta bere arreba gazteagoa zain eduki ditu bazkaltzen hasteko, baina azkenean, Ion gabe bazkaldu dute. Arratsaldean kontua argituko delakoan, bakoitzak bere lanetara abiatu dira.

Iluntzean, senideak etxera iritsi ala, Ionengatik galde-tu dute atetik sartu orduko, baina erantzuna ezustekoa izan da, Ionen berririk ez dago.

Aste honetan film laburren erakusketa jasten dela jakin dut, eta interneten kontu hau aztertu arte ez dut onik izan. Iluntzeko zazpiterdian, apuntatu dut, eta kalearen izena gogoan hartu dut.


Lanetik irten da etxetik pasatzeko hastia izan dut. Ordua baino lehen iritsi naiz bertara, eta zain nengoela, neska bat geratu da aretoko ate ondoan. Nik azkena pentsatuko nuena, bera ere zain zegoela, neu bezala, film laburrak hasi zain.

Elkarri hitz eman diogu, eta berehala sartzeko garaia zen. Elkarren gertu eseri gera, eta aurreko jendearen buruak sailhesteko, azkenean bata bestearen ondo ondoan. Filmak amaitu ahala jendea sartu eta irten zebilen, ordurako jada elkarrekin begiratzen genien zein sartzen zen eta zein iritertzen zen. Film bakoitzaren amaieran, hitz bakar batekin filmaren inguruko inpresioa esaten hasi gara elkarri.

Amaieran poliki poliki jaiki gera eserlekuetatik, besteek bezala irten gara aretotik, beti ere azkenak izan gabe. Kanean barrena, elkarrekin, bakoitza bere bideari jarraituz, norakorik aipatu gabe, ibili gara. Aurkezpenak egiteko aprobetxatu dugu semaforo gorri bat. Metroan banandu gera, norabide ezberdinak genituelako, noraino gindoazen zehaztu gabe bakoitzak.

Ion ikasketak erdi bukatuan utzita dabil, joan den azaroa ez geroztik. Lana bilatzeko asmoarekin hasi bazen ere, orain horretarako astirik ez du hartzen. Jende asko ezagutu du kanean, eta aukera bat baino gehiago dituela uste du momentu honetan.

Gaur goizean, adibidez, lagun bat aurkeztu diote, bere bila zebilen bat, auzoan oso ezaguna den bat, eta negozio bat proposatu dio. Gauzak argi eta garbi azaldu dizkio; arriskuak izan ezik, horiek esan gabe ere bistakoak dira. Askotan esan diotena da, hau gauza inportantea dela, eta lan honekin, beste lan inportante batzuek etorriko zaizkiola.



<<Graemek Boycott ????????mehatxuak, jakina) eramaten zizkien askotan nekazariei.

Eguerdirako, bere kontura, itsas ertzeko herrixka batera azaldu behar zuen, jaso duen helbidean. Ionek ezagutzen du herri hori, udaran hondartzara joandakotik, baina arrotza egin zaio, gaurkorako poltsikoan daraman helbide hori. Esandako ordurako justu justu iritsi da, eta dagoeneko paketea pronto zeukan, poligono industria-leko bazter batetan.

Iluntzean ez da Ionik azaldu agindu dioten lekuan enkarguarekin. Autobusetik jatsi orduko, ertzainek paketea kendu eta furgoneta batetan eraman dute.

Filmak, herrialde desberdinetakoak ziren. Orain, ez dakit zer den kontatu behar ez diodan hori. Ez kateatzeko neure historian. Ez konparatzeko geure historiak. Ez dakit noiz hasi nintzen nire historia kontatzen, sekula ez dut bukatu, beraz, oraingoan, hasi baino lehen, itxaron egingo dut.

Atzo Belenek autobusetik oso denda interesantea ikusi zuen. Grina piztu zion, eta arrastaldean, klaseak bukatutakoan, bertara joateko nahaiak bildu zuen. Erdi lo, eta ze pentsa ez zekiela zijoala, pozak atera zuen zulotik. Bereala, egun osoko ekintzak antolatu zituen: klaseak, bazkaria, pisuko garbiketa, dena arrastaldean dendara iristeko beti ere.

Arrastaldean lanetik irtetea, kalean zehar abiatu da. Jendearekin talka egin du, ez batekin eta birekin, baizik denekin. Oraingo denekin. Zein kaletatik igaro eraba-

kitzea, ez dirudi erraza denik, baina Belenek erraz erabakitzen du. Gustuko iruditzen zahion kalea hartzen du, eta hor dijoa. Agian oraintxe ez bada kale horretatik sartzen, beste batean ez da berdin izango. Ez du haukerarik galdu nahi.

Zioan eran topatu du, autobusetik ikusi zuen denda. Pozik sartu da, eta zer nahi duen ondo dakienak bezala, saltzaileari galdera zehatzak egiten hasi da. Saltzaileak ordea, ondo esku hartu dio, pentsatzeko denbora eskainiz, eta tarteka beste aukera batzuk ere azalduz. Azkenean, aukera mordo bat azaldu dizkio, eta hortxe gainditu du Belen. Saltzailearekin adostutako erretirantz izanda. Kalera lehen bai lehen irten nahita zegoen ordurako.

Kalean azaldu denean, askatuta ikusi du bere burua, eta pentsatu du, gehiago ez duela denborarik galduko denda barruan, kanpoko giroa alperrik galtzen utzita. Erosterakoan, behar duena ondo erabakita abiatzeko asmoa hartu du. Oraintxe bertan ezeren beharrik gabe doa kalean behera.

Anaiak Ioni telefonotik deika hari dela, hirugarren aldian, zenbakia erratu du, eta neuri deitu dit. Ni ez naiz Ion Trujillo, eta ez diot ezer argitu, baina historio hau hartu diot.

*Juan Mari Apaolaza Estensoro*

# Kalegats

## Euskal Letren Agerkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**Euskal Idazleen Elkartea**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88

## AUZO TRENEAN (beruna eta airea)

*“Billeteak, mesedez.” Eta jaka barreneko patrikatik txartel-  
txoa atera zuen. Neuk ere gauza bera egin nuen, eta leiho  
ondora mugitu nintzen.*

LAN EGUN BAT, AZKEN ORDUAK,  
BAGOIA ERDI HUTSIK DOA.

*Lan eguna zen, azken ordua, eta trena erdi hutsik zihoan.  
Nekea arnasten zen bagoi hartan, eta berunezko gorputzak  
ginen gu. Kanpoan, denda argiztatuak.*

HAREN BEGIAK, EZER GEHIAGO EZ BALEGO,  
NI, ISILIK, BERARI BEGIRA.  
HOR KANPOAN, DENDA ARGIZTATUAK.  
ERDIALDETIK AUZO TRENEAN NOA.

*Hasperen egin nuen. Ostean, begiratu egin nion.*

NI ISILIK, HAREN BEGIAK,  
TREN HORRETAN, NIGANA BEGIRA.

*Isiltasunak ainguratzen gintuen biok, eta bakardadeak besar-  
katzen. Segundo batez, biziaren astuntasuna arinagoa zela  
iruditu zitzaidan. Eta, ehuneneko batez, zorioneko sentitu  
nintzen.*

*Biok isilik, elkarri begira. Galderak airean.*

NORA JOANGO DA?  
BAKARRIK OTE DA?  
BIHAR ERE IKUSIKO AL DUT?

*Nongoa den esango balit...*

*Etxekoen fotoak erakutsiko balizkit...*

NONGOA NAIZEN ESANGO BANIO...  
ERAKUTSIZ GERO ETXEKOEN FOTOAK...  
ZENBAT GALDERA ERANTZUTEKO NAIZEN,  
ZENBAT GAUZA ESATEKO DITUDAN...

*Denbora lurrundu egin zen, lipar batez, nire irudimene-  
an, eta ez nengoela hain bakarrik sinistu nuen, begiradek  
hari mehe batekin josita ginduzkatela, eta halaxe egongo  
ginela beti, elkarri begira.*



<<Graemek Boykott ????????mehatxuak, jakina) eramaten  
zizkien askotan nekazariei.

GIZON LEGALA NAIZ,  
NIK ERE BANUEN LAN BAT.

*Gorritu egin zen orduan. Ez lotsatu horregatik, esan nahi  
izan nion, neu ere behar barik egon nintzen behin. Tipo lega-  
la zara, badakit.*

*Ez dakit ulertu zidan ala ez, baina irribarrea isiotu zitzaion  
ezpainetan, eta irribarre hark barruko zimur guztiak lisatu  
zizkidan. Harrezkero, airezkoa naiz, airezkoak gara, eta...*

ERDIALDETIK, AUZO TRENEAN, batera goaz.  
Ruper Ordorika & Naroa Ogando Ubiria

*Naroa Ogando Ubiria*



**asmoz** publia,  
ez dut hemen

# Alfa, Beta, Gamma, Delta, Epsilon... eta Omega

**Alphabet:** liste de toutes les lettres d'une langue.

Hizki koadrila osatzen dute hizkuntza bateko hizki guztiek. Errenkan, bakoi-tzak bere lekua errespetatzen du, inork besteari lekua kendu gabe. Horrela, osatzen dute hizkiek kalejira luzea. Zalantzarik gabe, ondo hezitako hizkiak dira.

Dena den, bakarrik ibiltzeko nortasuna izan arren, nahiago dute elkarlanean aritu, jolasean eta dantzan, hitzak eta paragrafoak sortzen.

Ondorengo alfabetoan, kalejirako lehena izanik, A hizkiak dantzara gonbidatu ditu gainontzeko guztiak.

**A A:** Ama eta Aita, edo Aita eta Ama.

**A B:** ABenduan jaio nintzen.

ABBA, for Muriel & Ronda, *Dancing Queen abesten jarraitu dezaten*. Murielentzat alai sentitu dadin, pozik bere itxurarekin. Rondarentzat, egoera latzean ere aurrera egin dezan, betirako izan dezan ilusioa eta bene-benetako laguna.

**A C:** ACunar, mecer criaturas o sueños *goxo-goxo kulunkan...*

**A CH:** ACHaques, hasi dira dagoeneko.

**A D:** ADos, adostasuna, gauza ederra, bai horixe!

**A E:** AÉreo, etéreo, lortu ezina...

**A F:** AFORTUNADA, *pequeña gaviota argentada cuyo corazón por nada suspira tanto como por esa lluvia tonta que casi siempre trae viento, que casi siempre trae sol*. B. ATXAGA in \_ by Luís Sepúlveda.

**A G:** Ana Gelbentzu dut izena.

**A H:** AHURRAK, nire eskuetakoak zabalik daude.

**A I:** AIRBAG, soinean eraman beharko genuke, ezta?

**A J:** Ajustar, ensamblar, acoplar... Ekintza ederra, zalantzarik gabe.

**A K:** AKABO! Finish, The End... beharrezkoa batzuetan.



**A L:** ALWAYS...beti.

**A M:** AMODIOA...AMORANTEA..., baita AMA. Horrela bitan izan naiz. AMA ohorezko kargua, dudarik gabe.

**A N:** ANDEREÑOIA izan nintzen gazte denboran, andereñoa orain ere heldutasunean. Andereñoa ohorezko kargua ere.

**A Ñ:** AÑO, tiempo que tarda la tierra en dar una vuelta alrededor del sol. Niregatik, dagoeneko, 48 aldiz egin duzu itzulia, Lurra. MILA ESKER, eta jarraitu horretan,OK!

**A O:** AORTA. Eta hori hondatu ezkeror?

**A P:** APUD = harantz ; deklinatze lanetan akusatiboari laguntzen. Apud amicam, amicum, apud amicos, amicas.

**A Q:** AQUA, beharrezko elementua bizitzan.

**A R:** ARANTZAK, askotan agertzen dira geure bizitzan, batzuk atseginak, ordea.

ARrosa: lore ederra, arantzaduna, ordea.

ARRaina: hauek ere dituzte *espinak*.

**A S:** ASKO, erabilpen anitzeko neurria.

**A T:** AT egon, deskantsua, parentesia... Beharrezkoa askotan kanpoan gelditzea, pentsatzeko unea eta horrela...

**A U:** AURRERA, AUKERA, AUNITZ, AUNAR eta AUGURAR beti, ahal izanez gero, garai hobeagoak.

**A V:** AVENTURARSE, AVANZAR.

**A W:** AWAY.

**A X:** AXOLA vs irresponsabilitatea.

**A Y:** Egoera anitzetan: Bai ondo! Hau poza! Lastimal! Hau tristura! Hau beldurra! Hau da desolazioa, hau! Hau oinazea! Zer egingo dugu ba!

**A Z:**

AZKENA

AZKEN PORTUA

AZKEN AGURRA.

## Hartu emanak

Neskazahar gaztea, 45 urtekoa.  
Mutil, gizon edo nornahi behar dut  
galdutako denbora errekupeartzeko.  
Kontxi: (943) 444555.

Sagardotegira joateko bikote bila nabil.  
Aurtengo sagardoa dastatu ondoren txotx  
egiteko. Mezua bidali:  
garitxotx @ eukalnet.net

20 urte ezkondurik daramagun bikotea  
gara. Ilusioa berpizteko, beste bikote batzuk  
ezagutu nahi ditugu, esperientzia berriak  
frogatzeko eta truke egiteko. Ez dago  
erreklamazio orririk.  
Manu eta Mertxe: (92) 61.62.63

40 urteko I.T.V-a pasatzeko olio aldatuko  
didan mekanikaria behar dut.  
Alabaren errodejate egiten badu 2 X 1  
onartuko genuke.  
Maritxu: (64) 33.22.11

Senarra aste osoa lanean etxetik kanpo.  
Eta nik ohea berotzeko norbaiten beharra  
sentitzen dut. Ondo ordaintzen da.  
Diskrezioa.  
Sara: (35) 12.34.56

Pipiaz jositako armairutik atera berria naizenez,  
erlazio eta joko berriak ezagutzeko irrikan nago.  
Deitu, lehenbailehen.  
Natxo: (71) 98.76.54

Gizon heldua, jatorra eta aberatsa.  
Andre dotore, polita eta berritsua topatu  
Nahiko nuke nirekin zinera, jatexera eta  
hotelera joateko. % 100 garantia.  
Erramun: (61) 112.112

Piercing eta tatuaje erakusketa bat egin  
nahi dugu. Ezkutuko lekuan dituzunak  
erakusteko aukera paregabea.  
Moñoñoenari sari bat emango diogu  
Jarri zaitez gurekin harremanetan:  
tetatuas@ piercing.com

Bertako emakumea.  
Euskal labela duen morroskoa harrapatu  
nahi dut. Pottokan trostan ibiltzeko.  
Joxepi: (84) 30.33.03

Mutil gaztea behar dut hizkuntzak praktikatzeko.  
Frantsesa eta grekoa batik bat.  
Teoriak gaindituak ditut.  
ilingua@ yahoo.com

Jubilatu aparta.  
Kanpai jotzeaz asperturik,  
Beste instrumentu batzuk jo nahiko nituzke:  
txibilitua, panderoa, ...  
Txomin: (99) 34.34.34.

Zure deialdia gure orrian sartu nahi baduzu.  
Idatz ezazu: berobero@ hotmail.com  
Zure zain gaude, zuk nahi duzunerako.



## LEPOKOARENA

Aitona Braulio Ameriketara ibilia zen. Artzantzaren inguruan ikasi beharrekoak han ikasi, jaioterrira itzuli eta, urte batzuren buruan, txakur askoren jabe egin zen, baserria etaazienda-zuria gobernatzeko; batik batik, Urizar aldean izan ohi zituen artaldeak zaintzeko. Baserritik urruti zeuden belardiak ziren haiek, ordekan gozo-gozoak ordeak; Nafarroarekin mugan egiten zuen parajeetan, bidelapurten mehatxupean. Arraza bitxi ugari bildu zituen, amonaren amorraziorako. Herriko albaitariarekin ondo zetorren aitona eta bere bidez lortu ohi zituen, beti ere barazki, gazta edo arkuimeren baten truke. Nola ez amonaren haserrea!

Behingoz, lortu zuen euskal artzain-txakurra. Albaitariaren *Dian 6a* malkarreko biragunean ezkutatzeko, txakurkumeak negar egiteari utzi zion; aitonaaren alboan jarri, aitaordekotzat hartu eta lehen egunetik ez zitzaion inoiz ere aldentu, ezta bere heriotza egunean ere. Gustuko zuen aitonaaren itzalean etzatea. Nik ere bai, bere magalean eseri eta piparen lurrinaren artean jaiotzen ziren kondairak, ipuinak eta Argiri buruzko istorioak entzutea. Bazen bat hamaika aldiz kontarazten niona.

Udako arratsalde sargoitsu bat zen. Siesta garaia. Ez zegoen ez siesta izurratuko zukeen eulirik, ez animarik. *“Bapatena zalaparta batek esnau ziun. Argi ere zaunkaka asi zen. Etxekonekoa zen”*, argitu zuen aitona. Negar zotinan batean zetorren emakumea. Erraina zuen, umea faltan zuela haieneka, tximetatik tiraka. Bazkalostean senarra goiko muineko artzain-txabolara joana zen, artaldea non eta nola zebilen erreparoa. Andrea alabatxoaren zain gelditu zen baserrian. Normalean, sukaldea jasotzen zuen bitartean, haurra alboan izan ohi zuen, harrikoa egin ahala, bere oinari lotutako lokarriarekin sehaska kulunkatzen zuela; azkenerako, kantu gozoren batekin lokartzen zuela.

Arratsalde hartan, inoiz ez bezala, euren logelara pasa zuen. Sukaldean eguzkiak bete-bete jotzen zuen eta iparreko logelako iluntasunean freskoago egongo zen. Sukalde eta baserriko lanak aurreratzeko tartea eman zion alabatxoak. Harritu ere harritu zen. *“Ordu askotxo lotan”*. Eta gauean lorik ez zuenez egingo hurbildu zen alaba esnatzera. Tapakiak lurrean, maindireek soilik haurraren siesta orduko epeltasuna zuten goxatzen.

Elizako kanpai-hotsak jendea bildu zuen herriko plazan. Kasik iluntzea atarian, bilaketa lanetan hasi ziren.

*“Iru taldetan banatu ginen. Talde bat errin gelditu zen. Araxuri errekatik bera jo zuen besteak, eta gureak Urizarrerako bidea artu”*, bide batez, Inaxioren, haurraren aitaren bila abiatu zirela. *“Argi nekin zijoan. Ondo moldatzen gea. Zentzu argikoa da, eta urtetan ardi ugari jasoizkit aitzulo eta erre-kazulotatik, belainok zirrikitu guztik istean”*. Gainerantzeko txakurrak behealdean.

Otsogaineko sarioan topatu zuten Inaxio. Bi ordutan pasa zituzten goialdeko txabola, haizpe eta leize guztiak. Ez ardi ez axuri. Behealdean ere ez zen giro. *“Txakur zaunkariak ara eta ona, uxatutako etxabereak bailaran gora zetozen, arrapaladan, norabideik gabe”* gehitu zuen aitona, berriro toxatik pipa belarrez beteaz, kontaktari etenik egin gabe. *“Gaue etortzeako emakumek baserriko argik piztu zituen, etxeko bidea ez galtzeko. Andik gutxia bilaketari utzi zitzaion, urrengo egunean. Etxea bueltatzeko, nire andrekin isilik aitzeko esan zian, ondoko gelan Mariaxun zeola-ta. Nire Jexuxak erriko apaiza eta beterinarioa begitan artuta bazitun, etzun olakoik Mariaxunekin, ez alajaina!!!”*

Ezkundu aurretik, kapitalean neskame aritu zenean lagun egin zuen; nahiz eta alboko herrikoa izan, han eza-gutu zuten elkar. Orduz gero lagun minak. *“Bein baino geiotan esan oi zian podereak zituela, bisioak”*. Honelako kontuekin fede itsua zuen amonak. Mokadutxo bat jan eta neka-neka egin erretiratu zen aitona.

Egungoari, Mariaxun, amona alboan, herriko plazara arrimatu zen, bertako gizon taldera. Ametsetan, galdutako haurraren negarra entzun omen zuen. Bizirik zen. Bere inguruan dena zen ilun eta heze. Alabaina, zerbait zuri eta leunak babesten zuen haurra.

Herriz herri zabaldu zen notizia. Jende mordo bildu zen: gertukoak, urrunekoak; kuriositateak jota, edo eta, kobazulo guztiak miatzeko irrikitan. Goiz osoa eman zuten. Denetarik atera zuten: ohe zaharrak, pixontzi lizunduak, golde herdoildu bat, aspaldian desagertu zen Kruxeneko behorra, larru eta hezur, lepazurretik zintzarria zintzilik. Ez zuten amorerik eman. Oraindik bazuten arratsaldea.

Bazkalorduko etenalditxoan zeudela, urrunean *Dian 6a* somatu zuten. Albaitaria zen, aguazilarekin. Larri zetozen. Stop guztiak jan zituzten eta kasik-kasik baita udaletxeko arkupean tar-tar-tar ari ziren agureak ere. Aguazila hasi zen kontaktarekin: Marea baserriko amona, Batzaxuloko iturrian lixiba egiten ari zela, perla koloredun batzuk aurkitu omen zituen. Hauze entzutean, Inaxio zur eta lur gelditu zen, alabaren lepokoa ote zen

beldur; jaiotegunean berak oparitutakoa. Haurra gertu behar zuen izan.

Herritarrek zonalde hartan lau kobazulo ezagutzen zituzten eta ura zeramatenak bi ziren: **Infernuxulo** eta **Putzuandi**. Bi kobazuloak sakonera handikoak, arriskutsuak oso; eta bietatik bat aukeratu behar zuten. Denboraz justu antzean, ezinbestekoa zuten aukeraketan asmatzea. “*Urak ekarri digu argia. Urak darama bere bidea. Ezagutu dezagun, bada, ur honen iturburua*”, pregonatu zuen Mariaxunek. Esan eta egin. Behingoz, aitona kasu egin eta bere esanak jarraitu zituen: kobazuloen ahora gerturatu ziren. Batean, anil koloreko tinte naturala isuri zuten; bestean, ardi-esnea. Herritar batzuk behealdeko iturrietan gelditu ziren, zelatan. Ordu bat, bestearen eta hurrengoaren atzetik, etenik gabe, esperoan.

Gauerako, gehienak etxera itzuli ziren. Aitona eta Argi, aldiz, kobazuloaren alboan mar-mar batean. Txakurra arratsalde osoa egon zen Infernuxuloko kobaren ahoan, arrastoren batekin aztoramenduak jota, bere burua sakonera bota nahian. Alabaina, isilune batean, haurraren negarra izan zitekeena, aurreko egunean txakurrek uxatutako arkumetxoak zirela ohartu ziren. Hala ere, Argi temati aritu zen. Ez zuen aho hura utzi nahi izan. Aitona ere ez. Berrirori sorginaren hitzak zituen, dilin-dalan, dantzari. “*Osta-osta zebilen haurra, logurarik ez eta, aitaren atzetik irten zen*”. Hitz hauekin lokartzean, albaitari motorizatuak esnatu zuen: Marea Goiko base-rietan (nola Bordetxe, hala Garondoko iturrietan) kolore urdineko ura jaso omen zuten. “*Arranopola! Jun ai Mareako iturria. Uden kolorea kanbiatzen baek, txurie baek, kotxeko bozina jo zak, jendek jakiteko*” esan zion aitona albaitariari.

Jendetza Infernuxulora inguratzen ari zela, entzun zuten *Dian* 6aren turuta. Ez zebiltzan gaizki. Zulo hartan bazen zerbait. Aitona dena prest zuen (saski handia, soka, kinkea...). Aitzitik, boluntariorik ez. Denek atzera egin zuten, aspaldiko esamesek beldurtuta: aho hartatik sartuz gero ez omen zen itzulbiderik. Infernuxulorako bidea zen-edo. Eta itzuliz gero, deabruaren itxura hartzen omen zen; usain txarreko piztia, belarri iletua eta isats luzearekin. “*Argi sartu gendun. Bea izan zen boluntario bakarra*”. Halako batean, soka emateri utzi zioten. Saskia Infernuxuloko sakoneraino iritsi zen. Isiltasuna nagusi, bapatean, deabruaren orrua zirudiena igo zen zuloan barrena. Jendeak atzera egin zuen. Gutxi batzuk sokari tiraka hasi ziren, saskia goraka. “*Auxe eskura izatean, ara nun gure sorpresa, eta baita sorginarena ere. Argik zerbait zekarkin auan zintzilik. Bai, usain txarrekoa; belarria eta isatsa bakarrik ez, gorputz osoa zuen iletua, ile zuri eta leuna, Mariaxun!*”. Hilabete gutxitako axuria zen, eta larru iletuaren artean aurkitu zuten lepokoa. Haurrik ez.

Aitona hil zen egunean hil zen Argi. Testamentuan dena amonari utzi zion eta, hilabete gutxira, amonak abere eta azienda-zuria herriko tratanteari saldu; behi pare bat mantentzearekin bazen esne nahikorik etxerako. Niri, aldiz, gauza bakarra utzi zidan: perladun lepoko bitxi hura; nire aitak zazpi urte lehenago oparitu zidan lepokoa.

*Eta hala ez bazan sar dadila Infernuxuloko ahoan*

**Arantza Urbieta**

# Publia

## Gorri urratuan

Barruaren barruan  
gorri urratuaren moztarroan  
etsipenen gordailua  
ezkututzen da;

egunez-eguneko  
aroz-aroko  
garaiz-garaiko  
bizipen garratzak  
giltzapetuta;

AGURRAK  
BELDURRAK  
LOTSAK  
EZINAK

Bide zaharretako  
arrasto  
beti berriak;  
borratu ezineko  
urrats sarkorrak.

Barruan...oso barruan behatu,  
atzean...oso atzean miatu,  
gordetako saminak  
banan-banan aztertu...

eta gaur...  
atzokoen aurrekoetan  
aurkitu zaitut  
zu, maitemin nerabe  
bizimin gozo  
ero  
gartsu  
bero  
bezain minkor  
hilezkor...

eta gaur, ostera,  
zuretako daukadana  
ezezten nabil,  
eguzkia itzali guran,  
lanbroa ito nahian ....

eta berbak  
tinta beltzez jantzi ditut,  
eta gorde  
poesian.

gaur...  
begietan maitemina  
zalantzan biziezina  
distantzian mina.

*Karmele Igartua Bengoa*



## Andoni

Goizeko zazpiak ziren  
 goizero bezela joan zinen  
 zure kotxea hartu eta lanera joan zinen  
 lanera, zure gustoko lanera joan zinen  
 bidea hartu eta lanera joan zinen  
 bidea hartu eta bizitzan aurrera joan zinen  
 bizitzan aurrera, aurrera joan zinen  
 bakoitzak badu bere bidea  
 batzuen luzea  
 eta besteena ez hain luzea  
 zurea ez zen hain luzea  
 motzegia guretzat.

Joan zinen,  
 betirako joan zinen  
 gure ondotik joan zinen  
 gure bidetik alde egin zenuen  
 gure jaietatik alde egin zenuen  
 gure egonaldietatik alde egin zenuen  
 gure mundu honetatik joan zinen  
 Nora joan zinen?  
 Non zaude?  
 Non aurki zaitzakegu?

Bizirik gabe ikusi zintugun  
 zure gorputza geldi,  
 isil,  
 bizigabe  
 zure aurpegia  
 zure betiko irrifarririk gabe  
 biziaren bidea bukatu zen  
 zure bidea hartu zenuen  
 zure ilusioak zurekin joan ziren  
 zure proiektuak zurekin joan ziren, halere,  
 gurekin zeunden, zaude eta egongo zara  
 betirako egongo zara

Eta orain urtea pasa ondoren  
 zu burutan zaitugu  
 zure falta somatzen dugu  
 zure irrifarraren hutsunea dugu  
 zure laguntasunaren,  
 jatoritasunaren,  
 alaitasunaren  
 beharra dugu  
 Joan zinen baina gurekin zaude  
 gurekin zeunden, zaude eta egongo zara betirako.

*Miren Deskarga*



## *Euria*

Euria ari du.

Euria, ura, ttantta.

Euria,  
eguraldia,  
txarra edo ona,  
batzuentzat lehenengoa  
besteentzat hurrengoa.  
Euria.

Kristalean, kax-kax  
lurrean, plof  
putzuan, txof.

Euria, ura, ttantta.

Hodeiaren negarra,  
Lurraren beharra.  
Euria.

Fina denean, xirimiri  
Bortitza denean, zaparrada.

Euria, ura, ttantta.

Putzua,  
Erreka,  
Ibaia,  
Itsasoa,  
Ozeanoa.

Hotz denean, elur  
Bero denean, lurrun.

Beti euria, ura, euria.

*Lupe Lekuona*

# Zatoz

Kaleak hutsik daude,  
hotzak eta bustiak.  
Zuk alde egin duzunetik  
iluntasuna gailendu da,  
eguzkiak norantza aldatu du.

Ni ere goibel nago,  
izoztuta eta hezea  
amets gaizto beldurgarri batetan murgilduta  
iratzartu ezinean.



Zu axola zatzaizkio,  
zu, zu eta zu soil-soilik.  
Aldiz,  
bihotzak,  
ahaztu nahi zaitu  
desagertu.  
Buruak  
ordea,  
ezin du zure eitea  
ezabatu.

Nire begiek  
norabiderik ez dute.  
Ezpainak  
lehortu egin dira, zartatu.  
Eskuek  
ukimena galdu dute.  
Bihotza  
hoztu, gogortu  
txikitu eta ozpinu egin da.  
Oinak  
nekatuta daude, alpertuta baleude lez  
ez dute mugitzeko,  
ez-eta pauso bakar bat emateko ere  
ganorarik.  
Eta burua...  
jira eta buelta  
zoratu da zeharo  
zure aurpegia  
begiak  
eskuak  
ezpainak  
gorputza  
oinak  
ilea...  
besterik ez du gogoratzen.

Aho eder, gozo eta irribarretsu horretatik  
hitz bi aski lirateke  
sendatzeko.  
Itsaso urdin eta barea islatzen duten bi begitxoen  
begirada  
nahikoa da  
argia berreskuratzeko.  
Zetazkoak diruditen hatz miragarri horiek  
gorputz osoan  
masaje lasaigarri  
modura nabarituaz  
paradisuko atea zabalduko zenizkidake.  
Marrubi koloreko ezpain dastagarrien  
bustidura,  
sua pizteko;  
laztan bat,  
berotasuna emateko  
bihotza biguntzeko.

Barru-barrutik ateratako  
barkamena  
elkarrekin berriro  
goxo  
emeki  
liluratuta  
maitekiro  
ortzian barna  
"biok bat" sentitzeko.

*Doltza Barandiaran*

## Denborak ez du inoiz atsedeen

### I

Harat-honat zabilta egun osoan,  
burutazioen agindupean;  
beharbada, denbora harrapatu nahi duzu,  
beharbada, berreskuratu baino ez duzu nahi  
baina,  
denborak ez du inoiz atsedeen,  
amets baino ez den etorkizuna iragan bihur baitezake horrek  
orain heldu baino lehen.

Iraganari begiratzeak pizten ditu  
gomutak eta penak;  
harri zaharren orroak,  
herri erien irriak  
behatus,  
urrutiko lurretan ezagutu genuen elkar,  
eta,  
inguru haietako biluztasunak  
gure nahien gosea, gure grinaren egarria  
naretuz,  
bere erraietan ezkutatu zituen erabat.

Zer ginen, ez dut gogoan;  
eraman genuen oro joan zitzaigula dakit,  
edo,  
ahantzura jabetu zela guztiaz.  
Harri zaharren orroa,  
herri erien irria  
dut gogoan.

Eguneroko ezerez soilaren handitasunak baino  
ez zituen harrizko arima haiek babesten,  
eta zu, ni, gu...  
egunerokotasunetik ihesi  
harat joan ginen,  
uste baino hutsalkeria gehiagoren zale,  
nahi baino behar handiagoaren jabe,  
eta hala ere,  
haien premia genuen;  
ezerez gorrienean murgildurik,  
ez zutena ere eskaintzen zigutenean beharra genuen.

### II

Harat-honat zabilta egun osoan:  
lau gurpilen gainean,  
oinez,  
edo besterik ezean,  
burutazioen agindupean.  
Burutazioak: agian, oporraldi batean  
amestu genituen ilusio galduak.  
Beharbada, ez ziren galdu;  
beharbada, ezinezko ilusioak ziren: utopiak.  
Denborak ez du etenik; agian,  
denborak izango du inoiz utopia ezagutzerik.

Hego-haize bihurriaren esanetara legez,  
alderrai bizi zara aspalditik nire ondoan;  
ezerk ez dizu atsedena bermatzen,  
atsedena zer den ere  
ahaztu duzula esango nuke,  
baina, hemen jarraitzen duzu,  
isilik, ene ondoan.

Aspaldian ni ere mutu nauzu;  
isiltasunaren hots uhinak sumatzen ditut,  
baina,  
oihartzun hori zail da ulertzen  
eta hala ere, alboan,  
beti zain naukazula haizeak esango dizu.

Zure etengabeko hegaldiaren norabidea  
asmatzeko gai izan nahi nuke,  
baina,  
ez dakit horrek lagun zaitzakeen,  
ez dakit nahi duzuna hori den,  
ez dut zure hegaldiaren oztopo izan nahi;  
zurekin, berriro,  
harri zaharren orroak,  
herri erien irriak entzun daitezkeen lurretaraino  
egin nahi nuke hegan.



## III

Harat-honat zabilta egun osoan,  
aspaldiko oroitzapenen mirak harrapatuta,  
aurretiko ilusioen gatibu,  
egunerokotasunean murgildurik bizi garenekin ahaztuta,  
erabat itsu.

Harri nintzela amestu nuen noizbait,  
irria galdu nahi ez zuen harria;  
izan ere, horrelako euskarriak  
geldi, sendo, gogor babes zezakeen herria,  
eta,  
sufrikario, oinaze zein gabezia menperatuz,  
tinko susper zezakeen ahulenen bizia.

Orain, ordea, ez dut harri izan nahi.  
Harriak mugitzen ez badira ere,  
zapaldu, zulatu eta kolpatzen dituzte  
eta erraien orroa entzuten dugun arren,  
ez dute gu bezala sentitzen.

Zerk lotzen zaitu?,  
harri zaharren artean bizi genuen iraganak?,  
oharkabean dihoakigun orainak?,  
gure ametsetatik ezaba ezin dugun etorkizunak?

Denborak ez du inoiz atsedeen  
eta horregatik, bederen,  
erantzun behar didazu  
eta esan  
zertan ibili garen oker,  
zertan huts egin dizudan,  
zenbat denbora hartu beharko dugun,  
berriro,  
gure arteko isiltasun arrotz honi emateko atsedeen.

Denborak ez du etenik,  
ozta-ozta ematen baitigu betarik jarrai dezagun amesten;  
beharbada, berak  
inoiz izango du utopia ezagutzerik.  
Zuri, niri, guri...  
zahartu zaizkigu ametsak,  
ezinezko ilusioak galdutzat jotzen ditugu,  
baina,  
oraindik orain, bizirik diraute oroitzapenak,  
eta etengabeko borroak  
nekeari eransten badio samina,  
berreskuratu besterik ezingo dugu egin  
harrien erraietatik zurgatu genuen kemena.  
Denborak ez du inoiz atsedeen.

*Anttoni Lopetegi*

Argazkiak falta  
dira, ezta?

Anjel Lertxundi

<< Zer konta die?????????rtsona bati,  
barrikadak bere eskue????????me indigena bati,  
ama aluan eskopeta sartu eta bortxatu eta gero paramilitarrek hilda galdu duenari,  
zer konta diezaiokezu>>

# • Solasean Anjelekin •

**G**auza bat sinesgarria egiteko irakurleari, zeuri egin behar zaizu sinesgarria, honek funtzionatzen du edo ez du funtzionatzen. Eta gero hasten zera elementu bila, kolorea, ea.ea

**Juan M. Apaolaza**

➤ **OTTO PETTERekin, bertan erabilitako hizkerarekin, zer hautsi nahi izan duzu ?**

OTTO PETTERen kasuan hiztegia aberatsa baino gehiago dago kolorearen kontua. Hasieran nik jarri nituen elementuak hauek izan ziren:

- lexikoa: eginiko hautamenak, ezezagunak baldin baziren ere, kontestuaren baitan ulertzeko utzi nituen. Umeek, hitz berriekin egiten duten modura.
- kontestualizazioa: erabilitako hiztegiaren kontestualizazioa, esanahiak ulertarazteko
- kanpoko giroa: Palentziako koto batean, lagun ehiztariekin joanda jasotakoa
- barruko giroa: etxeko suaren bueltan sortutakoa

Gero denborarekin joan nintzen beste elementuak inkorporatzen: agoteak, ea.

Baita ere, pertsonaien baten estatu animikoari buruz aritzeko, Mokoroaren hiztegiara jotzen nuen, espresio bizia eta kolore bitxia zuena jartzeko.

➤ **Irudimen ariketa bat. INEMeko leihatilara joan eta, ogibidea galde dizute. Zer erantzungo zenuke?**

Idazle.

Azken batean gure artean, batek idazlea dela esaten duenean, esan nahi du, horri eskaintzen diola bere arreta guztia, nahiz eta beste zerbaitetan lan egin ogi bidea bilatzeko. Eta horrek egiten duela uste dut idazle bat profesional, eta ez ogibideak.

➤ **Kritikak askotan botatzen du “ hori ez da literatura”. Zer da literatura ? Ba al dago literatura definitzerik?**

Literatura definitzea erraza da, baina horretan ados jaretzea ez. Historia liburu bat irakurtzen dut, mundua ezagutzeko; eta literaturak berriz erakusten dit mundu bat, existitzen ez dena, ni ezagutzeko. Baten, nik mundua

ezagutzen dut, eta bestean mundu bat sortzen dut, ni ezagutzeko.

Bizitza, heriotza, patua... gaia hauek erabiltzen dituzu zure literaturan. Eman al dizute pertsonaiek erantzunik?

Beti erantzun honenak pertsonai apalenek eman dizkidate. Nire nobelan hasieratik agertzen dira arrote edo baztertuak. Azkenean bizitzaren aurrean, horrelako jendeak ematen ditu erantzunik zintzoenak. Txikitari Oriko eskolan kontatzen ziguten fabula bat erabiltzen dut. Gizon pobre batek, bere atzetik doan, bera baino pobreago bat deskubritu zueneko.

➤ **Nobela bat idazterakoan asko kostatze al da haria egunetan eta hilabetetan mantentzea? Zer egiten duzu hori lortzeko? Al zatiak itsatsi daitezke?**

Segun ze nobela. Otto Petten posible zen parentesiak egitea, nahiko parte autonomoak zituelako. Nobela batean hari zaren kontu egin parentesi bat bi hilabeteko kontua dela. Parentesi hauetako bat egin ondoren, idatzitako dena berriz irakurri eta errebisatu egin behar da. Nik ez dut onik hori egin arte.

➤ **Literatura jaso, literatura ulergarria. Irakurleak ulertu egin behar omen du idazlea. Literatura erraztu egin behar omen zaio irakurleari.**

Testuaren arabera dago hori. Idazten hari zaren testuak eskatzen dizu konplikatzea. Nire obretan oso nabarmena da aldaketa hori. Gure egoera disglósikoan, geroz eta maila baxuagoa egiten badugu beti, desintegratzeko arrisku gehiago daukagu. Nik ez dut esaten gauzak zaildu egin behar direnik, baina bai, eutsi egin behar zaio, besteak beste, bai hizkuntzaren alde, eta kontatzen hari zarenaren alde.

➤ **Aipatzen da idazle gehienek azken aldian euren arazo pertsonalei buruz besterik ez dutela idazten, eta literaturak gizartearen arazoei egin behar direla aurre. Gizartearen arazoak zeintzuk diren erabakitzerakoan dator komeria. Gizonaren betiko arazoak ez dira gizar-**

tearenak? gizartearen arazoak arazo sozialak edo politikoak bakarrik dira? arazo psikologikoak edo kulturalak ez dira arazo sozialak? Planteamendu hori oso txuri beltzean egina dago.

► **Beste idazle batzuen eragina izango zenuen ziur aski. Zeintzuk dira zure erreferentziak?**

Idazle baten bizitzan beti egoten da idazle klabe bat. Momentu jakin batean, nortasuna eraikitzen hari zarenean irakurtzen duzun autore hori. Betirako markatzen dizun autore hori, niretzako Stendal izan zen, 17 edo 18 urterekin “blanco y negro” irakurri nuenean. Ez dut esango nik, Stendal dela idazlerik handiena.

► **Zenbat aldiz estiloz aldatu duzu?** Estiloz baino gehiago nik esango nuke, tonuz eta erregistroz. Uste dut nire lanei begiratuz, hasieratik hona, antza ematen dela, idazle berarenek direla. Uste dut irakurleak identifikatzen nauela nire edozein lanetan.

Honi buruz: Stendalen literatura egiteko modua oso gutxi aldatzen da

«Liburu horretan,  
nik i?????tuetan, hama-  
bo?????nen  
sentimenduak daude»

30 urtetan. Ni idazten hasi nintzenetik gaurko egunera, zenbat aldatu den gizartea; aldatu dira geografia politikoa, idazteko makinak, sukaldeak. Galdera da, aldaketa hauek denekin, nire formula literarioa berdina segi behar du? Uste dut ezetz. Nik garbi daukat idazle batek ezin duela idatzi orain dela 30 urte idazten zuen bezala. Nik esan ohi det: Gauzak errazegi egiten ari baldin baiz, kontuz, aldatu beharren hago.

► **Irudimen ariketa amaitzeko, jo dezagun idazle eskola bateko ikasle denak gomendio baten zain dituzula. Zer esango zenieke?**

Gomendio bat eman baino gehiago kontsiderazio bat egingo nuke, idaz-

le kaskar bat izateko ere, irakurle handia izan beharra dago.

► **Haur literaturan zer egiten zaizu erakargarri?**

Momentu honetan ez dut ume txiki-rik inguruan, eta horrek, konturatu naiz ikaragarri markatu nauela. Nire alaben edadearekin batera joan naiz lehenengo ume txiki txikientzat, eta gero hamar edo hamabi urtekoentzat gauzak egiten. Orain umeentzat idazteko galdetu egin behar dut, zer musika gustatzen zahien. Horrek esan nahi du kanpotik ari zarela. Hori bai, haur literaturan ikasi dut: zein inportantea den mundu horretan umorea.

*Nobelak egiterakoan, espazioak sortu egiten ditugu. Baina eredu batetik abiatuta sortzen ditugu. Adibidez niretzako, Otto Petten, erdi=aroa Baiona da.*

*Nire lanetan, paisaiak sortzerakoan, jolasak egiten ditut, hiru hiri hauekin. Baiona, Erroma, eta Barcelona.*

*Garai batean inportantea zen gauzak deskribatzea, irakurleak ez zituelako gauza haiek ezagutzen. Baina gaur telebista, eta irudien zabalkundearekin, nahikoa da*



erreferentzi bat ematea leku bat azaltzeko. Orain gutxiarekin asko esate da inportantea, informazio asko sujeritzea.

➤ **Nola zaude beste idazleekiko, zeinenetik zaude gertuen, gaur egun?**

Uste dut Arkaitz Kanorendik. Nik garai batetan egin nahi izan nituenak, eta ezin egin izan nituenak egiten dituelako. Badira absurduaren mundua, surrealismoaren mundua, Arkaitz Kanok maite, eta erabiltzen dituenak.

➤ **Sinesgarritasunak ba al du mugarik idazterakoan?**

Nobelagile baten arriskurik eta erronkarik handiena sinesgarritasunarena da. Baina ez istorioaren sinesgarritasuna, baizik eta hizkuntzarena edo sentimenduen agerpenarena. Gauza batetaz idazteko ez dago aurretik hura bera bizitu beharrik, baina informatu egin behar da ongi. Niri galdetu didate pianoa jotzen dudan, eta ez dut pianorik jotzen, baina pianista baten eskuek nola mugitzen diren galdetu nuen, Zorion Perfekturako. Beste behin Avila aldean kokatu nuen bikote baten bidaia, eta zorionez, nik deskribatu nuena, eta gero han ikusi nuena igualak ziren.

*Gizadiaren desarrollo guztia, pertzepzio moduan joan da oinarritzen eta sendotzen. Eta horretarako balio dute signoak eta sinboloak. Hauek indar handia dute literaturan erabiltzean. "Otto Petteren" orde, nobelak, "Atea" izan zitekeen izenburua.*

➤ **Idazleek askotan beraien zaletasunen apologia egiten dute lanean zehar. Zuk egin al duzu horrelakorik?**

Nahi ez duzula ere, holako elementuak sartu egiten dituzu. Egunero erabiltzen dituzun elementuak oso ondo etortzen dira lana osatzeko; ondo txertatzen badituzu. Kontua ondo txertatzea da.

➤ **Sasoian egoteko kirola egin behar, idazteko sasoian egon behar, baina buruak ezetz esaten duenean, ez dago zer eginik?**

Idazteko ere kirola egin behar, esan nahi diat, pixka bat zaildu egin behar dela. Ni neuk, gorputza ondo ez doanean, ez diat funtzionatzen. Gaixotasunean ere, luzaroko gauza bada, heure tenplea bilatu behar duk idazteko. Nire tenplea bilatzeko era duk, paseatzea. Buruak ezetz esaten badu ere jardun egin behar, jardun egin behar. Inspirazioa bazegok, baino sekula santan, ez duk agertzen lanean ez bahu.

➤ **Kanpoko eraginak, drogak eta , ze eragin izan dute zuregan?**

Nire droga bakarra zigarroa izan da. Eta orain hamabost urte, tabakoa utzi nuenean, uste nuen ez nuela gehiago idatziko. Gustatzen zait edatea, baina lanerako ez dut sekula edaten. Eta inoiz, gaztetan edanaren euforiarekin idatzitakoak, hurrengo egunean ez zuten ezertarako balio. Alkoholak laguntzen badu, oso rekorrido motzean laguntzen du. Poeren kasuan, alkoholizatuta idatzi zituen lanak ez dira nobelak, lan motzak dira.

➤ **Ez al zaizu otu idazteari uztea? Ondona hor pasatzen diat eta.**

## Zorion Perfektua

Angel Lertxundi, Alberdania 2002

**16** urteko neska batek musika-eskolatik etxera doala atentatu baten lekuko da. Hiltzaileari ez dio erreparatzen. Bere begirada hildakoan pausatzen da. Seguru aski neskato honek heriotza ikusten duen lehenengo aldia da. Odolak lurrean utzitako orbanari begira dagoela ez diote hankak erantzuten. Ezindua sentitzen da. Bitartean ertzainak etortzen dira, eta geroago, argazkilaria. Argazkilariak argazkia egiten du, hurrengo egunean egunkariko portadan azalduko dena. Erailitako trapitxeroa eta alboan neskaxa gazte, mardul, izutua. Hala deskribatzen du protagonistak egunkariko argazkia:

*“Nik ematen nion albisteari kontrastea, bizitzaren eta heriotzaren arteko lehia morbosoren ilustrazioa”.*

Atentatuaren lekuko izan eta etxera iristerakoan amak errieta egiten dio berandu etorri zelako. Izugarrikeria eta egunerokotasunaren kontraste horretatik jaiotzen da, Anduk dioenez, Zorion Perfektua eleberria.

Liburuak jasotzen ditu hilketaren lekuko izan eta hurrengo 24 orduetan neskak bizi dituen hausturak eta hausnarketak bai bere inguruan, bai bere barruan. Liburuak 24 kapitulu ditu.

Gaia irristakorra da. Idazlea ez da jartzen ez hildakoaren, ez hiltzailearen tokian baizik eta lekukoaren tokian, distantzia hartzen du gaiarekiko. Lekukoak, neskatilak, kontaktzen dizkigu gertatutakoak lehenengo pertsonan eta 14 urte geroago. Kontaketa horretan salto egiten du iraganetik orainaldira eta orainalditik iraganera naturaltasun osoz.



**<<Hemengo publik??????en da, txalo egiten  
dizu ala ez, zaila da jadanik hemen,  
jendea harritzea.  
Baina han ben??????  
publiko baten aurrean>>**

Liburu irakurterraza da. Hizkuntza samurra eta naturala erabiltzen du Anduk. Asko gustatu zait nola dagoen idatzita. Esaten dute erregistro aldaketa egiten duela Anduk liburu honetan bere beste liburuekin konparatuz. Nik ezin dut iritzirik eman ez baititut besteak irakurri.

Gurasoak neskari esaten diote:

- *"Hilketa bat ikustea egokitu zaizu gairxo horri, bai, baina joka dezagun gertatu ez balitz bezala. Segi, bada, teatroarekin"*. Gurasoak beraiek ere lanak hartzen dituzte normaltasun itxura emateko gertatzen ari denari.

Mehatxatzaile bat ere hurbiltzen zaio ez hitz egiteko esanez.

Ertzainak eta klasekideek aldiz kontatzeko eta kontatzeko, presionatu egiten dute.

Horrela dio neskak: *"Prensak, klaseko jendeak, irakasleek, ertzainek.. batera eta bestera ninderabilten nitaz axola gabe"*.

Protagonista bakarrik dago liburu guztian zehar, are gehiago institutuan bere klasekideen artean, kalean topatzen dituen bi neska horiekin dagoenean edo gurasoekin etxean dagoenean. Ez dago komunikaziorik. Jendearekin dagoenean nabarmendu egiten da bere bakardadea.

Hala esaten du berak:

*"Bakarrik nago, bizitzan lehendabiziko aldiz. Amaren jarrera sentiberak ezin dit bakardadearen sentsazio hondogabe hau arindu"*.

Liburua musika-eskolan hasten da, ia ia, musika-eskolan bukatzen da eta eleberri erdialdean piano entsegu batzuk ere egiten ditu. Schumanen Bonheur Parfait (Zorion Perfektua)

menderatzen saiatzen da neska. Eleberri bukaeraraino ez du Zorion Perfektua obra menderatzen. Beraz, nobelan zehar aldaketa bat ematen da. Neskaren heldutasunean eta kontzientzian ematen den aldaketaren seinalea, islada edo sinboloa agian. Heldua egiten hasten denean, dudatzen hasten denean, pentsamendu autonomoa garatzen duenean, kontzientzia garatzen hasten denean, momentu mingarri eta txarrean menderatzen du Zorion Perfektua (pieza).

Beste aldetik liburuaren lehenengo orrian dagoen zitetako bat hala dio:

«Liburu horretan, nik i?????tueta, hamabo?????nen sentimenduak daude»  
 «Liburu horretan, sentimenduak daude»  
 «Liburu horretan, sedaude»  
 «Liburu horretan, sentimenduak daude»  
 «Liburu horretan, sedaude»  
 «Libu »

*"Kontzientziarik ez bagenu, animalia huts ginateke, zorion perfektu halako baten jabe"*.

Horri gehitzen badiogu Schumanen Bonheur Parfait (zorion perfektua) obra Scènes D'Enfants "haurtzaroko eszenak" deituriko bildumaren zati bat dela badirudi haurtzarora eta kontzientzia eza dela zorion perfektuaren funtsa. Gero eta kontzienteago gero eta zorion perfektutik urrutiago, eta agian, zorion erreal eta inperfektutik urbilago.

Teknikaren inguruan eta artegin-tzaren inguruan aipu batzuk egiten ditu Anduk eleberrian zehar:

- *"Pozarren joko dituzu piezok, baldin teknikaz ahanzten bazara"*- Schuman

- *"Neure hatzetan sentitu nituen teknika eta sena elkar hartuta"*

- *"Kontatu nahi den historiari dagoen soinekoa josi behar zaio"*

- *"Etika eta estetika txaponaren bi aldeak dira"*.

Neskatoak gogoko duen mutiko zalu eta eder bat ere azaltzen da eleberriaren hasieran eta bukaeran. Mutiko hori, neskarentzat, desilusio bat izango da. 10 urte geroago izan duen beste 5 urteko erlazio bati buruz ere hitz egiten du. Moztutakoa esaten du: "Hamar hilabete inguru iraun zuen zorion perfektua,

beste lau urte luzatu zen errutina" "Bakarrik sentitu nintzen, amak hildakoa ahazteko eskatu zidan bezain bakarrik". Bakardadea konstante bat da eleberri gztian zehar.

Sentsazioa izan dut liburuan elip-si asko dagoela, kontatzen ez diren gauzak. Anduk irakurleari pentsatzeko eta bakoitza bere konklusiotara iristeko aukera ematen du.

Aipagarria da Aizpea Goenagak Zorion Perfektuaren gidoian lanean ari dela liburuaren pelikula egiteko.

Oso sinesgarria iruditu zait protagonista eta bere pentsatzeko era nerabea.

Niretzat nobela borobila da. Guztiz gomendagarria.

**Borja Etxabe**

## EL CORTEJO NUPCIAL HELADO EN LA NIEVE

Ismaíl Kadaré • Alianza Editorial, 2001

**T**euta Shkreli doktoresak ezin du egun berri bakoitzak zerbait zikina gordetzen duenaren sentsazioa barrutik atera 1981eko apirilaren bata geroztik. Egun horretan, eta datu erreala da hau, ezertuak Kosovon albaniarren hobe-nahi eta errepublika eskaerak odoletan zanpatu zituen, ikasleen manifestaldiari tankeekin erantzunez eta ehundaka hildako utziaz. Shkreli zirujauak, albaniar zaurituak artzategatik erantzun beharko du lan egiten duen hospitalean, ez hanka ez bururik duen bileraz mozorrotutako epaiketean.

Hemendik abiatuta eta pertsonaia ezberdinei jarraituz Ismaíl Kadarék Yugoslaviako serbiar eta albaniarren arteko elkarbizitza zailaren berri emango digu. Doktoresa, bere senar poeta, unibertsitateko maitemindu bi (bata albaniarra, bestea serbiarra), Dobrilla serbiarren segurtasun kidea ...beraiekin batera sentituko ditu irakurleak egoera zail horren aurrean izu, ulertu ezin, ezintasun, nazka eta indefentsioa, pertsonaien barnean berehala kokatzen zaituen prosaren eskutik.

Erraz irakurtzen den liburua da laburragatik ( ipuin luze bat dirudi), eta kontaera zuzen eta garbia duelako, irakurlea gertaeren lekuan jentalki kokatuz. Zapora min-gozoko ipuina, euskaldunoi ezagun egin dakigukeen hausnarketa dakarrena . Lurrean berdinean bizi behar duten bi herri, kondairetaraino sustaitzen den elkarrenganako gorrotoa, odol zorrek itotako irtenbidea...Itxaropen eta etsipenaren arteko lerroaz dihardu finean Kadarék, marra hau ezabatuz, ia ikusezin

bihurtuz. Nahikoa da keinu bat, bi maiteminduen elkartzea ilargipean, kexua idatzita daraman zinta, edo besterik gabe, behin eta berriz eguzkiaren irten eta sartzeko erabaki tematia, nahi izanez gero, etsipen gogorrena ere itxaropen bihurtzeko, bi herriren arteko ezkontza posible egiteko "...Tras mil años de rigidez los cortejos se descongelarían por fin para proseguir su marcha hacia las ceremonias interrumpidas..."

*Ainhoa Odriozola*

# EL GABINETE DE UN AFICIONADO. HISTORIA DE UN CUADRO

Georges Perec • Anagrama, 1989

**A**nagrama argitaletxeak eskaintzen digun liburua-  
ren izenburua dugu: El  
gabinete de un aficionado. Eleberri  
berezia, dena den; izan ere, El gabi-  
nete de un aficionado koadroaren  
historiatik abiatzen da narrazioa, ibil-  
bide korapilatsua eginez, margotze  
artistikoaren mundura iristeko.

Georges Perec idazle frantziarrak  
( Paris 1936 - 1982) koadro jakin  
horren historia hartu zuen aitzakia  
Herman Raffke garagardo ekoizle  
alemaniarren bizitza kontatzeko.  
H. Raffkek gaztetatik ekin zion lana-  
ri Alemanian bertan, geroago Ame-  
riketara iristeko. Kasualitatearen era-  
ginez sortu zitzaion margo laneki-  
ko zaletasuna, urteetan areagotuz  
joan zena, pixkanaka, margo-lan  
ugarien jabe egin zen arte. Horrela,  
Pittsburghen, Ohion, 1913an estre-  
inako aldiz, ikusgai jarri zuten Hein-  
rich Kürz-ek margotutako "EL gabi-  
nete de un aficionado". Koadroan  
agertzen zen Herman Raffke eseri-  
ta, lortutako koadro ondareari begi-  
ra. Raffke jauna zendu ondoren,  
faraoiaren modura lurperatu zuten,  
berak eskatu bezala, bere koadroa  
berek in zuela. Hortaz, koadroa lur-  
peratuta, oinordekoek arte bildu-  
mako lanen enkanteari ekin zioten...

Sorpresaz beteriko liburua dugu  
hau. Sorpresak etengabe. Lehenen-  
goa koadroaren egitura bera da. Izan  
ere, joko berezia sortzen da koadroa  
bera bere barruan sartzen denean.  
Gelditu ezina den jokoa, errepro-  
dukzioz erreproduktio, kopiaz kopia  
tamaina erreduzituz, azkenean, pun-  
tu txiki bat izatea iritsi arte. Baina,

ez da berezitasuna soilik horretan  
gelditzen, zeren eta kopia bakoitza  
ez da aurrekoaren kopia zehatza.  
Kopia batetik bestera detaileak alda-  
tzen dira, ñimiñoak izan arren, iku-  
sezinak batzuetan, lupa baten beha-  
rrez ikustekoak askotan.

Behaketa tresna moduan erabiliz,  
koadroan bildutako beste oihalen  
berri ematen digu idazleak, arte eta  
historiari buruzko ezagutza nabar-  
menduz. Koadroen inguruko infor-  
mazio zehatzena eta pentsaezina  
agertzen du, 2zm x zm leko koadroa  
deskribatzen duenean bezala. Beraz,  
deskribapen zehatzak eginez, infor-  
mazio osatuena ematera iristen da  
Perec, beti ere hizkuntza erraza era-  
biliz. Hori bai, umorea ardatz izanik  
bere idazteko moduan. Askotan han-  
dikerietarako joera agertzen du, gus-  
tukoa du absurduaren mugaraino  
iristea, horrek berak irakurlearengan,  
irribarrea edo barrea sorraraziz.

Horrela esaldi bukaezinak idazten  
ditu, ia orri bateko tamainakoak.  
Horietan, datuak, kopuruak, ezauga-  
rriak pilatzen dira, edo izenak ere:  
margolarienak, saltzaileenak, aristo-  
kratenenak, margo lanen izenburue-  
nak...zerrenda zerrendaren gainean  
arte katalogo osatuena osatu arte.

Berezitasuna eta bizitasuna dira,  
nire ustez, liburu honen ezaugarri  
aipagarrienak. Originaltasuna, erre-  
alitatea eta fikzioa konbinatzerako-  
an, originaltasuna ere literatura, artea  
eta pentsamendua uztartzerakoan.  
Horrez gain, umorea eta atrebentzia  
esanguratsuak izango dira idazlea,  
literatur talde batean kokatzeko.  
Hain zuzen ere, Georges Perec-ek

OULIPO-ko ( literatura potentziala  
lantzeko tailerra) kidea izan zen Ray-  
mond Quenneau eta François Le  
Lionnais-ekin batera.

Liburu honek, dudarik gabe, ira-  
kurraldi bat baino gehiago eskatzen  
du. Daukan hizkuntza erraza eta orri  
kopurua kontuan hartuta, har daite-  
ke egun bateko irakurgaia bezala,  
baina ez da hori gomendagarria,  
aspergarria suertatu daitekeelako.  
Egokia da, aldiz, lagunarteko ira-  
kurketa egiteko; aproposa arratsal-  
de atseginak igarotzeko Perec-en  
idazteko modu berezia komentatzen  
den bitartean.

Linealtasuna ez denez liburu  
honen ezaugarria, sorpresaren gaia  
berrartu nahiko nuke iruzkin honen  
amaieran, kontakizunaren sekretua  
eta harridura ere liburuaren azkene-  
ko orrirako gordetzen baitira. Edo-  
zein irakurle afizionatuk aska deza-  
ke korapiloa.

*Ana Gelbentzu*

## POR QUE LEER LOS CLASICOS

Italo Calvino • Tusquets Editores, 1992

**I**talo Calvinok (Cuba 1923-Italia 1985) idazle moduan bere lehenengo pausoak italiar neorrealismoan eman zituen, urte hauetan partidu komunistaren partaide izan zen. Baina, 50. hamarkadaren bukaeran partidu komunista utziko du, eta bere idazkerak ere aldaketa sakona izango du, ordurateko errealismoa alde batera utzita estilo fantastikoa jorratzen hasiko da.

Autoreak, lehen atalean dioen bezala, bere klasikoen zerrenda egin du liburu honetan. Eta hauek banan-bana aurkeztu eta aztertu aurretik, idazle eta idazlan klasikoak zer diren esaten digu. Definizio batez azaltzea ezinezkotzat jota, hamalau definizio-ezaugarri ematen dizkigu horrelako lan bat zer den azaltzeko. Beste xehetasun askoren artean, klasikoari buruz dio, behin eta berriz irakurri arren gauza berriak esateko gai den liburu dela; eta, aurretik egin diren irakurketen aztarna dakarren eta ezagutu dituen kulturetan ohiartzuna utzi duen liburu dela. Bakoitzak bere klasikoa duela ere esaten du, nolabait norbera definitzen duen klasikoari deitzen dio honela.

Bigarren ataletik aurrera Italo Calvinok aukeratu eta aztertutako klasikoen iruzkinak irakurtzeko parada izango dugu, bera definitzen duten lanak, bera nor den esango digutenak, alegia. Hona, klasikoak irakurtzeko arrazoi bat, nortzuk garen galderaren erantzuna bilatzea. Idazlearen aburuz klasikoetan aurkienezake galdera zahar honen erantzuna. Beste arrazoia, jakiteak edo ikasteak dakarkigun gozamina.

Hogeita hamabost ataletan bana-

tuta dagoen liburu hau, hogeita hamar urtetan zehar idatzitako iruzkinak eraten dute. Iruzkin hauetan, liburuak eta autoreak aztertzen ditu. Zerrenda Odisearekin hasten du eta greziarren garaiko obra honetatik abiatuta xx. mendearaino iristen da, Pavese da aipatzen duen azken autore. Ibilbide literario-kronologiko honetan, obra eta autore hauek jaso dituzten eragin literario eta filosofikoak aipatzen dizkigu, eta baita hauek egin dituzten ekarpenak ere. Halaber, lan hauen bidez garaian garaiko pentsamolde eta ikuspegiak zenbait zantzu ematen dizkigu.

Bestalde, aipatu nahi nuke, liburuan jorratzen diren klasikoak ezagutu ezean irakurketa oso zaila egin dela, autoreak egiten dituen erreferentzietan galtzeko arriskua dagoelako. Beraz, liburu honen probetxua irakurleak gai hauetan duen ezagutzaren baitan dago, hau eskasegia bada, irakurketa pisua eta aspergarria izan daiteke.

Azkenik, Calvino beraren hitz batzuk ekarri nahi nituzke iruzkinari bukaera emateko: "...ningún libro que hable de un libro dice más que el libro en cuestión..."

*Ander Zuloaga*

??????

?

## NI EZ NAIZ HEMENGOA

Joseba Sarrionandia • Pamiela, 1985

**H**emen duguna puzzle bat da, esperientziaren mapa bat eta egunerokotasunaren kronika bat. Hemen duguna gartzelako eguneroko bat da, idazle presoaren gogoetak dakarzkiguna. Barne munduaren, kultura unibertsalaren eta euskarari buruzko gomuten nahasketa bat eskaintzen digu Sarrionandiak urtariletik uztaile arteko diarioan.

Esperientzia, esplorazioa eta ezagutza zabala hari hartuta, galderak eginarazten dizkio irakurleari. Gose grebak, txapeoak eta Euskal Herriko gatazkaren egunerokotasun gogorra, existentzia, kosmosa eta hizkuntzari buruzko hausnarketekin nahasten dira. Euskal kultura, Afrika, Amerika, Europa, Ozeania edo Asiako tradizioekin ageri da; nahinongo elezaharrak Sarrionandiaren haurtzaro eta gaztarako oroipenekin batera. Kartzelan preso egonda, munduan zehar garamatza; literatura eta idazleak ditu mintzagai hainbatetan, irakurritakoetatik egindako ondorioak ondo landuta edo bere horretan ematen dizkigu, baina beti esanguratsuki. Artelanak, margo eta marrazkiak bereziki, eta hauen gaineko iruzkinak dira beste pasarte batzuetako protagonistak. Aipatzekoa da halaber, koloreei eskaintzen dien arreta berezia; zeldetako bizitza monokromoari ihes egin nahian-edo, koloreen sinbolismoari edo pertzepzioari buruz dihardu tarteka-marteka.

Maixuki harilkatzen ditu edukin anitzak. Gure herriaren etorkizuna, memoria, eta oraina, kanpoko denbora mitiko, literario eta errealekin nahasten da. Denbora apurtu eta collage eder bat eratzen du: hemen-

goa eta hemengoa ez dena, gartzelakoa eta munduaren beste puntakoa, idazlea eta irakurlea, pertsonala eta kolektiboa. Honela dio Tradizioa eta Sinkretismoa atalean: “euskaldun irauteko, alde batetik ez ditugu galdu behar erroak eta geure tradizioarekiko fideltasuna, baina beste alde batetik unibertsalitateira irekirik egon behar dugu, beste tradizioetara eta beste sentsibilitateetara. Munduko jakintza geurea izan behar da, geure kreazioa ere munduarentzat izango bada.”

Hemen duguna gartzelatik euskal erroetara eta mundu zabalera irekitzen den arrakala bat da, irakurleari zelan edo halan pentsaraziko diona.

*Aritz Garaita*



# OTTO PETTE

## Andu Lertxundi • Alberdania, 1994

**A**ndu Lertxundi hain ezagun eta estimatua den idazlearen obrarik onenetarikotzat duten nobelaren aurrean gaude; euskal literaturaren erreferentzia puntu ere bilakatu dela diote kritikoek.

Erdi Aroan kokatzen gaitu liburuak, nahiz eta eta ez den denbora historikorik aipatzen, ezta espazio geografiko jakinik ere. Halere gaia oso gaurkoa da, unibertsala dela ere esan daiteke. Landetxe bateko bakar-dadean bizi den Otto Pette jaunaren etxeko atea jotzen du ezezagun, arrotz batek. Konturatzerako bertan ostatu hartu eta nagusiaren lekuaz jabetzen ahalegintzen da. Otto Pette, beldurtuta, kezkatuta... arrotzaren nortasuna igertu nahian saiatzen da, bi pertsonaia nagusien arteko borroka bat hasten da, hitzezko borroka...

Otto Pette: Hilean ala bizian, semiotika edo zeinuen hizkuntza lantzen du nobela honetan Andu Lertxundi punta-puntako idazle oriotarrak, Umberto Eco-ren eredu jarraiki.

Nobela historikoa da. Erdi Aroan kokatzen da, eta garai hori oso gizar-te kritikoa dela kontuan hartu behar dugu. Guzti hori aintzat hartuta, hizkera eta gertakariak garaira egokitzeko egin den ahalegin berezia goraiatu behar zaio oriotarrari, hala nola sineskeriek zuten garrantzia: Dama Beltza (heriotza eta izurritearen pertsonifikazioa), pestea.. orbanak, (deabruak hartua denaren seinale eta soluzioak), apokalipsia (Zaldun Beltza), deabruarekin ituna (matxinatuak), inkisizioa, (Zugarra-murdi)..

Nobelaren muina, borroka da, bi zaldun misterioaren arteko lehia.

Otto Pette da bata; arrotza izenez deskribatzen den gizona bestea. Nobelaren hasiera ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko, Baronetaren atea jo eta pertsona arrotz bat sartzan da bere etxean, inoren baimenik gabe gurutzatzen du atea.. Arrotza izenez ezagutarazten zaigun pertsonaia. Elkarrizketa bat hasten da bi protagonisten artean, nobelaren mamia eta istorio osoa irauten duen solasa.. (52-54 or.)

Eta amaiera berriz, heriotza, borroka galdu duenarena, zazpi pausotan ematen den ondorioa (439-440 orrialdeak).. sukarra gorantz, zorne-gaiztotu, delirioa, odola, ohorea, erotu beharrea, bi zaldien irudia berriro, gakoa, eztulka, seinale fisikoak hasi dira agertzen eta atea, heriotzak jo du atea..

Hilean bizian bezala: bitzita eta heriotzaren arteko gatazka, lehia isladatzen du bi pertsonaien arteko borroka.. Liburuaren azalean agertzen diren bi zaldien irudiari begiradaxo bat emanaz, bi irudi ezberdin ikus daitezke: alde batetik bi zaldun elkarri begira, borrokarako prest. Beste modu batera begiratzen badugu aldiz, burezur bat antzeman genezake. Ezin dira ordea, bi irudiak aldi berean ikusi. Bata edo bestea, hautaketa isladatzen da, alegia, bizitzan ezin dira bi gauza batera egin, bi zaldi hoiek planteatzen dutena da, aukeratu egin behar dela: bizi ala hil, biak batera ezinezkoa baita. (282 or.)

“Fugite, partes adversae, ut complexus non sit similis morte”: alde egizue kontrariook zaretanok, elkartzea ez dadin gertatu heriotzaren modukoa. Parte kontrarioak ez dai-tezela elkartu, batu, horrek heriotza

dakar eta, pestea, izurritea.. borroka heriotza dakarrela esan nahi da..

Andu Lertxundik erabili duen hizkuntzak zeresana eman du, hizkuntza errazetik aldentzen saiatu da Andu, oso estilo propiora jo du, euskara literarioan asko sakondu baitu, hiztegiaren zehaztasuna eta aberastasuna horren lekuko. Hizkuntza asmatzen duela dioenik era bada.. Gaiaren inguruan ere zeresana badago, egileak modernitateaz dituen kezken gainean eraikia dela diote adituek.. nola edo ala, gizakiaren bi aurpegiak erakutsi nahi dizkigu nobela honetan Andu Lertxundik, ispiluaren bi aldeak arakaturaz jolas egiten du.

6 bat urte eman dizkion nobela irakurtzeko denbora eta patxada ezinbesteko bi elementu oso garrantzitsuak dira. Udako arratsalde lasai, presarik gabeko hoietan lerro bakoitza birritan irakurtzeak denbora eta dedikazioa eskatzen du. Liburutzar honetan biltzen den informazio guztia barneratu ahal izateko, orrialde bakoitza, paragrafoak ere bai zenbaitetan, astiro irenstea da guztiaz jabetzeko modu bakarra.

*Doltza Barandiaran*

## HITZAK ETA GILTZAK

Iñigo Aranbarri • Alberdania, 2001

**H**itzak eta giltzak, horixe da liburuaren izenburua, hasieratik Iñigo Aranbarri liburuan zertaz mintzatuko zaigun azaltzen duena: hitzei buruz jardungo du, hitzen erabilera okerre, bitxie, jolastiei, xelebreei buruz. Hitzak dira hainbat gogoetaren abiapuntu. Eta esan daiteke hitzak azpian ezkutatzen duten pentsamoldeak ulertzeko giltzak ere badirela.

Batzuetan hitz batzuen hasierako esanahia du abiapuntu, edota horietako askok egin duen ibilbidea aztertzen du. Beste batzuetan, erabilera-tik abiatuta, ondoren beste eremu batzuetara hedatzean esanahi edo ikuspuntua nola aldatu den erakutsi digu (iraultzaile, bake...). Askotan hitzak garai bakoitzaren adierazle direla ere badio idazleak, eta garai batean inolako oztoporik gabe onartzen ziren asko gaur egun “politikoki ez zuzenak” liratekeela (Itziarren semea...). Denetarik dugu liburuan: komunikabideetan agertzen diren abizenen idazkera, abertzale-tasuna, hiztegieta aurki daitezkeen bitxikeriak, herrietako hiztegitxoak, hiztegiaren murrizketa, hizkuntzen arteko interferentziak, hiztunen arteko gaizki ulertuak, itzulpen desegokiak... Ez da estilo liburu bat, irakurleak kontuan hartzeko moduko aholku bat baino gehiago aurkituko badu ere. Ez da txisteen bilduma bat, baina umore fina darabil, eta Fernando Amezketarrak berak ere aterako du burua pasarteren batean. Ironiak badu lekuri hitzen joan-etorrian. Guztietan argi uzten du Iñigo Aranbarrik belarria fin duela, belarria fin eta luma (edo teklatura) zorrotz. Azken zatian, bere espe-

rientziak oinarri hartuta, hizkuntzei eta hizkerei buruzko gogoeta bat egiten du, batez ere bermeotarren eta azkoitiarren hizkera biziari erreferentzia eginez.

Liburu txikia da, 100 orrialde ingurukoa. Eskuartean tarteka-marteka hartuta nahiz irakurraldi batean erraz irakur daitekeena. Orain artekoak esan ondoren, norbaitek pentsatuko du filologoentzako idatzitako liburua dela. Edo idazleentzat. Edo hizkuntza lanbide dutenentzat. Horientzat guztientzat interes handikoa eta funtsezkoa bada ere, hiztunari zuzentzen zaiola esango nuke, bakoitzak bere gogoeta egin dezan. Egunerokotasunean, herri hizkeratik hartutako adibideetan edota komunikabideen jardunean oinarrituta egiten dituen gogoetak interesgarriak ez ezik gustagarriak iruditu zaizkit oso, hizkuntza kontuetan buru-belarri dabilzanentzat nahiz irakurle ororentzat. Behin baino gehiagotan ekarri dit irribarrea ahora, grazia handiz idatzitako liburua baita.

Ez da hitzen bilduma hutsa, garbi uzten du idazleak zeinen gogoko dituen hitzak, hitz jolasak, edota hiztunen ateraldiak. Liburuaren kontrazalak dioen bezala, maitez eta minez idatzitako liburua da, eta nabarmena da hori.

Liburu honi buruzko iruzkin gehiago nahi duenak, baditu bospasei Literaturaren zubitegia webgunean (<http://zubitegia.armiarma.com>).

*Edurne Lazkano*

# UNOS BUENOS ZAPATOS Y UN CUADERNO DE NOTAS. COMO HACER UN REPORTAJE

Anton P. Chéjov • Al?????????, ??????5

**L**iburu hau berezia da. Bi lan, bi intentzio jasotzen ditu. Bata da liburuaren editoreak duena: egilearen obra azaltzea eta aztertzea, eta bestea da, egilearena bere obran. Bigarren honi kasu egingo diot.

Chejoven liburua, garai hartan bizi zuen egoerak eragindako ekintza bat izan zen. Kritikak ari zen izaten garai hartan, eta berak, bi gauzari erantzun nahi zien: batetik bere inguruan sumatzen zuen hipokresiari edo ondo-uste faltsu bati, eta bestetik bere lanean, beregandik aldendu nahi zuen teorizazio hutserako joera.

Chejovek, Sajalingo irlan bizi diren presoen egoerari buruz idazlana egitea erabakitzen du. Bere garaiko gizartearen porrota nabarituko duen zerbait delako, eta bertara joateak bere barnea aldatuko diolako, orduarteko arteko teorizaziotik irten beharrean sentitzen zelako.

Chejov ordurako idazlea zen, eta bazuen ofizioa, hori horrela, ba dirudi, beste idazle baten prozesuaren parekoa dela lan honetan egiten duena, hau da; gai eraginkor bat aukeratu, eta jendearentzat ez ezik, berarentzat ere berria izango de ikuspuntu baten bila abiatu, horretarako behar den bidaiak eta zailtasunetan murgilduz. Chejoven asmoa beraz, idazlan bat ateratzeari zela iruditzen zait.

Emaizta liburu eraginkor bat izan zen. Bertan Chejovek Sajalin irlako egoera gordin, anker, eta jasangaitzak azaltzen ditu, baina inongo presarik gabe, zaratarik gabe. Eta horixe dago bere lanaren arrakasta.

Ikusten dena soilik azaltzen du, ez du juzgorik eta diskurtsorik erabiltzen. Berak bere hankekin, bere bi begiak eramaten ditu egoera gordinenaren aurrera eta ikusten duena jasotzen du bere lumarekin. Hau besterik ez, baino egoerak ondo aukeratuta, eta behin eta berriz eginez, emaitza eraginkorra da.

Irakurlea oso ondo jabetzen da Sajalinen gertatzen ari diren injustiziaz. Edo besterik ez bada, irakurlea Sajalinen injustiziak gertatuko balira bezala portatzea darama Chejoven lanak.

*Juan Mari Apaolaza*

## AGUR, EUZKADI

Juan Luis Zabala • Susa, 2000

**L**iburua ona iruditu zait, irakurtzen pasatu dudan denbora horretan eman izana ez zait damutu behintzat, eta hori ez da gutxi. Izartxoak ematen hasita, bate-tik bosteko eskala batean, hiru izar emango nizkioke.

Agur, Euzkadi lehenik eta behin orijinala iruditu zait (Lauaxeta ber-piztea bera eta horrek eragin dituen hainbat egoera esate baterako). Bigarrenik irakurterraza atzeman dut; dinamikoa, bi protagonisten urra-tsean doa kontakizuna, mendian goi-ti eta beheiti dabilenaren erritmo bizia du eleberri honek. Bestalde, erregistro diferenteak ederki uzta-ru ditu egileak; alde batetik prota-agonista nagusietarik baten ahotan, Julen Lamarainenean, jarri du eus-kara batua (Ipar Euskal Herriko lexi-koaz ontsa aberastua); eta bestetik, Lauaxetaren euskara bizkaiera eder batean emana dator. Edukiari dago-kionez, Julenen jarioan zenbaitetan liburuaren egilearen gogoetak entzun uste ditugu. Liburuak, bes-talde, badu umore zipriztinik, ira-kurketa eramangarriago egiten dute-nak, hain segur. Eta azkenik esan nahiko nuke maitatu dudala honda-rreko sorpresa, nahiz eta liburuaren lehen erdia urrentzerako halako zer-bait gertatuko zela sumatu (bizidu-nek bi protagonistak ezin dituztela-rik ikusi, entzun edo ukitu).

Aipatu sorpresaren kariatara, ezus-tekoa zertan datzan azaldu gabe, aipatuko nuke Alejandro Amenaba-rren “Los otros” filmaren ezusteko-arekin (funtsean galtzerdiari buelta ematea da, barka espresioa) badue-la antzekotasunik. Amenabarren fil-ma eta Zabalaren liburua 2000. urte-

an plazaratu zirela jakinik, kasuali-tatea ote bietan gertatzea eite handi-ko, barka berriz espresioa, galtzerdi buelta hori?

Juan Luis Zabalak magikoki “Lauaxeta” izeneko iraganaren ispi-lu baten aitzinean kokatzen gaitu, egun zertan garen ohar gaitezen. Zabalak pertsonaien bitartez gerra zibilean gudari haiek zituzten xede-ak eta egungo askatasunaren mugak eta herrenak erkatzen ditu. Lauaxe-tari gerra errepublikarrek irabazi zutela pentsarazten dioten zantzuak (Ertzaintza patruila, euskarazko kazeta, euskaraz mintzo karrike-tan...), autonomia eskas baten mini-moak besterik ez dira Julen bezala-ko abertzaleen begietara. Kontras-teak hedapen handiagoa du bi pertsonaia nagusiak alderatzean: Julen Lamarain abertzale sutsua izana noizbait, etsita ageri da bizitza-rekin oro har (dibortzioaren frustra-zioa, lanaz aspertu eta utzi egingo du...) eta zer esanik ez politikari dagokionez. Julenek ez du bizitze-ko, hots borrokatzeko, gogo handi-rik. Ilusio oro galdua du, indiferen-tziaz jokatzeko, bizirik dagoela hilik dago (Euskal Herria bera legez?). Hori Lauaxetaren abertza-letasun erromantikoarekin kontra-jartzen da; Lauaxeta hilik dagoela bizirik dago. Lauaxeta Euskal Herriaren alde dena emateko prest dago; Lauaxetak bere bizitza bizi egin zuen, laburra izanagatik intentsua izan zen. Horretarik landa bizitzeko ilusioa eta ekimen berrien nahikaria ezagun du Lauaxetak, eta ooren gainetik jakin min handia du. Bi per-sonaiek hausnarketa franko txiri-kordatuko dituzte, baina beharbada

heriotzari buruzkoa da maizenik jorratzen dutena.

Liburuan barrena intertestualita-tea ageri da usu. Euskal literatura-ko idazle anitzen izenak azaltzeaz gain, askotan haiek idatzi esaldi edo pasarte bat ere badakar testuak. Horri bide emateko, hain segur, Lauaxeta protagonistetarik bat iza-tea aitzaki ezin hobea da. Liburuko Lauaxetak eta Julenek, beste prota-agonista nagusiak, ederki ezagutzen dute euskal literatura eta bien zale-tasun komun horri esker, arrunt sinesgarri zaizkigu honi eta hari egi-ten dizkieten erreferentziak. Euskal idazleak ez ezik, atzerritar idazleak ere ageri dira eta haien obrei buruz-ko aipuak. Inoiz, intertestualitatea estakuru, homosexualtasuna, eta bisexualtasuna bezalako gaiak aipa-tzen eta jorratzen ditu Zabalak; Lauaxeta eta Lorca, edo, Julen Lama-rain eta Lauaxeta beraren arteko egoera eta sentimenduak azaleratuz. Eta hori gutxi balitz bezala, idazle-ak ez diren bestelako sortzaileak eta haien obrei buruzko erreferentziak ere bai, bertsolariei eginak konpa-razione.

*Karlos Aizpurua*

# AZKENAZ BESTE

Anjel Lertxundi • Alberdania, 1996

**A**nitza da Anjel Lertxundiren obra, anitza edukian, anitza forman; ipuina, artikulugintza, saiakera, narrazio liburuak... “Azkenaz beste” nobela sailako titulua da.

Betikoa den gaietariko bat jorratu du Lertxundik aipu dugun lanean, bizitza eta heriotzaren arteko lehia. Gai zaharra era atsegin bezain sakonenean jarri du eztabaidan irakurlearen gogoan. Mende ezberdinetako bideetan jarri gaitu zaldiz gidatutako kalesa baten bitartez. Eta mendezmendeko ibileran, gaia iraunkor.

Autoreak ezin hilez dirauten aita-alabak eta bidaiari zehar, era batera edo bestera, kondenaturik bizi diren pertsonaiak aurkeztu dizkigu.

Hil ezinka herraturik dabiltzan aita-alabak eta Salemen 1692. urtean gertatu ziren epai eta urkaketak ezenatoki berean erakutsi dizkigu Lertxundik, hilezkortasuna eta hil beharra, fikzioa eta errealitatea uztartuz. Fikzioa den gertakizuna, irakurleontzat erreal diren Salem, Boston, Baiona edo Zarautzera ekarri du.

Edukiak idazlearengan eragiten dituen pentsamenduak sarritan azaltzen dira liburuan zehar; bai pertsonaien ahoetatik, bai narratzaileak berak eginak: Bizitza, heriotza, patua... “...Ezer gutxi zait bizitza, hiltzerik ez badaukat...” edo “...Ezin aldatu dugun iraganaren errudun eta ezin iragarri dugun etorkizunaren bazka nahi gaitu patuak...”

Izenburuak berriz (“Azkenaz beste”) kontakizunaren amaieran aurkitu du bere lekua, idazleak hilkor garenontzat bizi berri baten esperantzaren atea zabalik utzi duenean

eta pertsonai hilezkorrarentzat heriotzarena.

Beste alde batetik gaiak eskatzen duen sakontasuna era dotore eta atseginean idatzi du egileak, metafora landu bezain xumeak erabiliz, konparaketa argi bezain hurbilak edo deskribapen zehatzak; horien adibide ugari aurki ditzakegu kontakizun guztian zehar, esatebaterako: “...sutan luzaz edukitako esnearen gisa ahitzen zitzaizkion onik irteko ametsak, esnegaina bezala loditzen etsipena.” Gainera ezohizkoa den hiztegi aberatsa erabili du, alor horretan ere irakurlea janzteko aukera eskainiz.

Bukatze aldera, ez nuke aipatu gabe utzi nahi, Lertxundik bere nor-tasun euskalduna, bere identitatea bermatzeko izan duen abilezia, kontakizunean euskaraz ikasten duen amsterdamdarra barneratu duenean edo istorioari Zarautzeko itsasoan bukaera ematearekin. Unibertsala den gaia euskaldun egin du.

Anduk “bere” estilo eta etorri xamurrarekin irakurlea bereganatzea lortu du “Azkenaz beste” eleberrian.

*Karmele Igartua*

## MENTURA DUGUN ARTEAN

Anjel Lertxundi • Alberdania, 2001

**A**njel Lertxundik narratzaile moduan egin duen lanagatik ez du inolako aurkezpen beharrik euskal irakurleen artean. Honetan, ordea, ez dator istorio bat kontatzera, zeren “ Mentura dugun artean “ saiakera baita.

Irakurle eta idazlearen arteko harremanetik abiatuz, hamaika gailantzen dira liburuan: mitoak, tradizioa, ahozko literatura, itzulpenak, fikzio eta errealtate arteko haria,...

Liburutegi izugarri aberatsa da idazleak saio honetan erakusten diguna. Etengabeak dira erreferentzi literarioak liburuan zehar: Saragamo eta Kafka, Stendhal eta Calvino, Rilke eta Beckett, Rousseau eta Maiakovski , guztiek dute lekua Babelgo liburutegian; baita euskal letrek ere: Axular eta Gandiaga, Mikel lasa eta Etxepare, Itxaro Borda eta Lizardi.

Liburua idazlearen irakurletasuna aldarrikatzera dator, literatura idazlearen eta irakurlearen arteko komunikazio gisa aukertuz. Anduk horrela adierazten du: “ Idazle baten liburutegiak informazio ugari eman dezake idazle horren obrak “ eta “ “ Idazketa bezain ekintza sortzailea dela irakurketa , kontua da plaza berean elkartu behar dutela biek literatur miraria gerta dadin “. Orduan, idazlea idazle baino lehenago irakurlea da. Izan ere, idaztea batzuetan sufritzea izan daiteke, baina irakurtzea beti plazer bat da.

Halaber, literaturaz gaindi, arteaz eta estetikaz ( eskulturaz edo pinturaz) edo hizkuntzaz eta komunikazioaz ere badihardu saiakerak. Kontenplaziorako gaitasuna galtzen ari garen zorabiozko mundu moderno

honetan, kontenplaziorako gaitasun minimo bat gordetzen ahalegintzea errebendikatzen du idazleak. Horrela, inguratzen gaituen munduaz ohartuz eta pentsatuz literaturaren ikuspegitik ez ezik, baita etikarenetik ere. Idazleak gizartean duen zereginari buruz ari da Anjel Lertxundi. “ Literaturaren egitekoa da: inguratzen gaituen errealtatetik abiatu, imajinatzen dugun mundua kontatzea.” Hamaika proposamen intergarri, beraz, eztabaida eta hausnarrerako.

Liburuko kapituluek abiapuntu narratiboa dute sarri, eta narrazioa eta saiakera txandatu agertzen dira, irakurketa atsegina bihurtuz. Lehen pertsonan idatzita eta elementu autobiografikoz hornituta. Lexikoa jasoa, hiztegiaren laguntzaz irakurtzeko modukoa.

Liburua astiro irakurtzeko da, amaierara iristeko presarik gabe, liburuaren azalean agertzen den marrazkiak hori iradokitzen du. Behin baino gehiagotan irakurtzeko komenigarria.

Literatura maite baduzu, euskal literatura kasurako, liburu paregabea. Hona saio lagungarri bat gure mundua – eta burua – hausnartzeko.

Saiakera dotorea, oso.

*Lupe Lekuona*

# EL CANON OCCIDENTAL. LA ESCUELA Y LOS LIBROS DE TODAS LAS EPOCAS

Harold Bloom (*Damian Alou-ren itzulpena*) • Anagrama, 2004

**E**z da erraza, inola ere, liburu kritika-egile bati bere lanaren iruzkina egitea. Are gutxiago idazle honek Mendebaldean idatzitako guztiaren artean, eredu a-canon- ezarri nahi duenean. Harold Bloom literatur kritika-egile eta teoriko handia dugu. Estatu batuarrak da, New York-en jaio zen 1930. urtean, eta Humanitate irakaslea da Yale-eko Unibertsitatean. Erromantizismo ingelesaren inguruko hainbat lan idatzitako du, baina bere lanik garrantzitsuenak, inolako zalantzarik gabe, honako hau dugu.

Liburuak bost zati dauzka, eta horren aurretik, prefazio eta preludioa idazten du. Lehenengo zatian, Canonaren goraiipamen batez ematen dio hasiera liburuari. Ondoren, hogeita sei idazle hartzen ditu eredu gisa, Mendebaldeko literaturaren historia aztertzeko. Honela, bigarren zatian Aro Aristokratikoa azaltzen du (Shakespeare, Dante, Chaucer, Cervantes, Montaigne, Goethe...), hirugarren zatian Aro Demokratikoa (Dickens, George Eliot, Tolstoi, Ibsen...) eta laugarren zatian Aro Kaotikoa (Freud, Proust, Joyce, Virginia Wolf, Kafka, Borges, Neruda, Pessoa, Beckett...). Bosgarren zatian canon-aren inguruko ondorioa plazaratzen du.

Mendebaldeko canon-a (El Canon Occidental) ezartzerakoan, analisi ideologikoaren inguruko teoriak aurka ageri da, eta ez ditu aintzat hartzen marxismoaren, feminismoaren zein ikasketa kulturalen ikuspegitik egiten diren proposamenak. Bloom-en iritziz, estetika da canon-a ezar-

tzeko irizpidea, eta hori oinarri hartuz, William Shakespeare ezartzen du canon horren buru. Canon honen aurka dauden guztiak Minduen Eskolan (Escuela del Resentimiento) biltzen ditu. Bloom-entzat, beraz, garrantzitsuenak irakurketaren plazerak da, testu literarioek daukaten balio estetikoak ematen digun plazerak. Orijinaltasun literarioa da kanonikotasuna ematen duena, eta Bloom-en hitzetan "Shakespeare da, oraindik ere, inoiz ezagutuko dugun idazlerik orijinalena"

Harold Bloom-ek ikerketa zehatza egiten du hogeita sei idazle horien inguruan. Idazle espainiarretan Cervantes baino ez du jasotzen hauen artean. Liburuaren bukaeran, apendiz gisa, Bloom-entzat canon hori osatuko luketen idazle eta idazlan guztiak jasotzen ditu. Hor espainiar Estatuko autore gehiago jasotzen dira. Kataluniarrak bereizita ematen ditu, euskal herritarrek bi baizik ez daude, eta horiek espainiarren artean aipatzen dira: Unamuno eta Blas de Otero. Euskaraz idatzitako idazlerik, beraz, ez dago Bloom-entzat Mendebaldeko canon-aren barruan.

Literaturaren historian gailurra jokatzen duen idazleak ezagutu eta hauen lanei buruz zerbait jakiteko liburu interesgarria dugu hau. Mendebaldeko ikuspuntua baino ez du jasotzen, eta horren barruan, mundu anglosaxoiari garrantzia handiegia ematen dio nire ustez, daukan garrantzia gutxietsi gabe, jakina. Canon-aren inguruan dagoen eztabaidaren aurrean, ados naiz balio estetikoak literaturan daukan garran-

tzia goraiatzen denean, baina, ez nator bat, ideologizazioa alde batera utzi behar dela esatearekin. Izan ere, uste baitut, Bloom-en aukeraketan ere, badagoela nolabaiteko ideologizazioa (nahiz eta berak balio estetiko soilaz jantzi).

Zenbait momentutan irakurtzeko astun samarra gertatzen bada ere, interes handikoa iruditzen zait, unibertsalak izan arren ezezagun gerta dakizkigukeen hainbat obraren nondik norakoak jakiteko. Hori horrela, hiru izar emango nizkioke.

*Mikel Santiago*

## UNOS BUENOS ZAPATOS Y UN CUADERNO DE NOTAS. COMO HACER UN REPORTAJE

Anton P. Chéjov • Alba Editorial, 2005

**P**iero Brunellok, Veneziako Unibertsitateko irakasleak, Chéjov-en obra baten testu aukeratuak eskaintzen dizkigu.

Chéjov-ek La Isla de Sajalín obra idatzi zuen, hasiera batean bere medikuntza tesia izateko (onartu ez ziotena). Sajalín Errusiako Ekialdean dagoen irla bat da, Japoniaren gainean, leku babesgabea, klima umela eta hotzekoa, Chéjov-en esanetan “infernua”. Eta hara eramaten zituzten, Tsarren garaian, derrigorrezko lanak egitera epaituak zirenak. Hasiera batean, orduan, La isla de Sajalín obraren helburua deportazioko lurra horren bisitaldi, ikerketa, zentsoak... egitea izango litzateke, nahiz eta hasierako helburua Chéjov-ek argi ez izatea, eguneroko bizimodutik irteaz gain, medikuntzari zor zitzaion ordaindu nahian-edo. Dena den, bertako biztanleen bizimoduaren, ohituren etab. deskribapenaz aparte, taula estatistikoak, zentsoak... egin zituen Chéjov-ek.

Hala baina, gure helburua ez da La isla de Sajalín liburua aztertzea; baizik eta Unos buenos zapatos y un cuaderno de notas. Chéjov-ek, hala ere, ez zuen halakorik idatzi. Zer gertatu da?

Fikzio narratiboan hainbatetan agertzen den narratzaile-editorearen trikimailuarekin gertatzen den bezala, hemen ere editorea dugu bitartekari. Piero Brunellok Chéjov-en lana hartu eta testu aukeraketa bat egin du, orden berezi batean.

Brunellok berak jarritako Bernard doktorearen zitari jarraituz: “En el reino de la ciencia, por decirlo así, no

se sigue un rumbo definido y aparece detrás lo que casualmente podría presentarse delante” (Unos buenos zapatos y..., 21. or.)

Eta hau izan da, hain zuzen, Brunellok egin duena: Chéjov-en La isla de Sajalín obratik eta bere korrespondentziatik aukeraketa bat egin, orden berezi bat jarri eta ariketa pedagogiko bat egin du. Liburuaren azpi-izenburuak argi dion bezala *Cómo hacer un reportaje* erakutsi nahi digu.

Horrela bada, hiru urratsetan banatu du lana: Hasierako prestatze-lanak, inkesta eta idazketa. Atal bakoitzaren barnean, beste azpi-urratsak zehaztu ditu. Guztiek dute izenburua eta azpi-izenburua (Brunellorenak), eta jarraian horri, bakoitzari, lotu dakioken Chéjov-en zita bat.

Erreportaje bat nola idazteko, primerako laguntza dugu. Hainbat eta hainbat puntu kontuan hartzekoak agertzen baitira: behaketa, datuak nola jaso, gehiegi ez planifikatzea, objetibotasuna, egiazkotasuna, eta baita beste adibide praktikoago edo zehatzagoak ere (jaietan eta ezkontzatan parte hartzea, lagunak egin, toponimia aztertu, sentimenak guztiak erabili, klima kontuan izan, haurrekin egon eta behatu euren jolasak —helduen bizimoduaren isla—, etab.). Eta agertzen dizkigu ere idazlearen zailtasun batzuk: Idazketa ez geroratzeko gomendioa, edota ezin bada idatzi ulertu zergatik izan daitekeen (norbera nola sentitu den momentu batean adieraztea adibidez, inongo lekziarik eman nahi ezean).

Dena den, iruzkin hau idazten

duen honi gehien harritu diona da Chéjov-en hitzek islatzen duten errealitatea, objetibotasunez bada ere, inongo karga emozional demagogikorik gabe, islatzen duena gogorra da, gogorra sentitzen da.

Apendizean, berriz, Brunellok berak hartzen du hitza eta 40 bat orrialdetan, Chéjov-en bizimodu, ideologia, ideia literarioak eta orduko kontestuari buruz idazten du. Eta horrek Chéjov-en lanean eta bizimoduan sakontzeko akuilua suertatzen zaio irakurle honi. Bere garai-kide izan ziren idazleak agertzen zaizkigu (Dostoievski, Tolstoi), espetxeetako arduradunekin izan zituen arazoak, politikoki bere burua ez sailkatzeak ekarri zituzten kritikak, zensurari beldurra...

Mediku-idazle hau bidaide egiteko grina sortarazten duen liburua, Brunello editoreari esker.

*Miren P. Azkarate*



# SI UNA NOCHE DE INVIERNO UN VIAJERO

Italo Calvino (*Esther Benítez-en itzulpena*) • Siruela, 1993

**I**talo Calvino (Cuba 1923-Italia 1985). Agronomia ikasten hasi bazen ere, Bigarren Mundu Gerraren ondorioz utzi eta gerra bukatu ostean, literatura ikasteari ekin zion. Partidu Komunistan egon zen 13 urtez. Nobela errealistak idatzi zituen hasieran eta alegoriko eta fantastikoak ondoren. 1967an Parisa bizitzera joan eta Oulipo literatur taldearekin harremanetan jarri zen bertan. Horien eraginez hasi zen konbinatorian oinarritutako teknikak erabiltzen. Garai horretan kokatu behar dugu, hain zuzen ere, aztertzeragoazen liburua.

“Estás a punto de comenzar a leer la nueva novela de Ítalo Calvino, “Si una noche de invierno un viajero”. Relájate. Concéntrate. Aleja de ti cualquier otra idea. Deja que el mundo que te rodea se esfume en lo indistinto.” Horrela hasten da Italo Calvinoren liburua, eta egia esan, ez da liburu hau irakurtzeko aholku txarra. Nik behintzat hadi-hadi irakurri behar izan dut, haria ez galtzeko. Baina zein da bukaerarik ez duten hamar nobela hauen haria?

Irakurle sutsu bat da protagonista eta hamar istorio horien arteko lotura bakarra. Bigarren pertsonan hasten da liburua, baina lehenengo eta hirugarren pertsonak ere tartekatzen ditu. Ondorengo esaldiak argi adierazten duen bezala, protagonista nagusiak ez du izenik, hartara, errazago hartuko du edozein irakurlek bere papera. “Este libro ha estado atento hasta ahora a dejar abierta para el lector que lee la posibilidad de identificarse con el Lector que es leído (...)”.

Protagonista liburu-denda batera doa, irakurtzen hasi berri den Si una

noche de invierno un viajero liburu akastuna aldatzera. Ludmilla izeneko neska bat ezagutuko du bertan eta biek irakurriko dituzte hamar nobela ezberdinen hasierak, antsietate handiz eta frustrazioz, arrazoi sinesgaitzen ondorioz, ezingo baitute bat bera ere bukatu. Istorio bakoitzaren tituluak elkartuz, hamaikagarren ipuin baten hasiera irakur daiteke. Bukarrera duen bakarra, bi irakurleen arteko “maitasun” istorioa da.

Idazketa eta irakurketaren inguruko hausnarketa egiten du autoreak. Idazlearen blokeoaz, plagioaz, idazteko teknikez... hitz egiten du. Estilo ezberdinak lantzen ditu gainera. Irakurketari dagokionez, irakurle ezberdinak irudikatzen ditu: batzuentzat irakurketa plazerra da eta irentsi egiten dituzte liburuak; beste batzuei informazioa lortzea besterik ez zaie interesatzen eta ordenagailu bidez deszifratzen dituzte liburuak edukiak, denbora aurrezteko; azkenik, bada “ez irakurtzen” ikasi duen pertsonaia bat ere.

Badirudi idazlea irakurlearekin jolasean ari dela etengabe. Hain irakurle sutsua den liburuako protagonistarekin jolas egiten du, baina baita, kanpotik, nobela bere osotasunean irakurtzen dugunok ere. Gauzak hasi eta bukatzen ohituak gaude eta beraz, protagonistari sortarazten dion frustrazio bera pairatzen dugu irakurleok. Irakurri ondoren pentsarazi badit ere, momentuan ez dut oso gustura irakurri.

**Oneski Garbizu**

## ITALIA, BIZITZA HIZPIDE

Andu Lertxundi • Alberdania, 2005 eta Berria

**I**talia hizpide duen bidaia kronika arrunt batek ezinbestean eraman beharko gintuzke bertako altxor bisitatuena ezagutzera, turistikoa izaten baita Italiara egiten diren bidaia gehienen helburua. Narrazio sorta honetan, ordea, protagonismoa galdu dute santutasunez beteriko kupula erraldoiek, zutabe ilara amagabeek eta garai laudagarriak gogorazten dizkiguten hondakinek. Horien orde, erakusketa azoka bihurtutako lantegi zaharrak, argitaletxeak, liburu dendak eta joan den mendeko zenbait idazleren eszenatokiak erakusten dizkigu Andu Lertxundik.

“Hogeigarren mendeko Torino eta Italia ulertzerik ez dago Fiat fabrikarik gabe; ezta Einaudi argitaletxerik gabe”; esaldi honek labur lezake bidaia kronika honen helburua. Izan ere, lehenengo pertsonan idatzitako narrazio hauetan, batere turistikoa ez den Italiaren errealitatera hurbildu nahi gaitu autoreak, zenbait idazle ardatz hartuta.

Ibilbidea, baina, ez da soilik literatura izango. “Geltoki inguruko arkupeetan usaintzen ari naizen oregano usain bera sentituko zuten Pavese, Primo eta Carlo Levik, Leone eta Natalia Ginzburg senar emazteek, Calvinok eta Vittorinik ere Einaudi argitaletxera bidean, edo arkupetako terraza batean”. Hauxe da garrantzitsuena oraingoan, pertsonaiak bertan kokatu, bizitzari buruz zeukaten ikuspegia ulertu ahal izateko.

Einaudi argitaletxean hain zuzen argitaratu zuen Italo Calvinok Hiri ikusezinak. Eta bertan zioenez, “hiri ikusezinak, hiri bizi-ezinen bihotzean jaiotzen diren ametsak dira”. Bizi

ezintasun horrek bultzatuko zituen akaso Salgari eta Pavese beren buruaz beste egitera?

Ikusten denez, pertsonak dira hemen protagonista. Izan ere, hitza lanbide duen bidaiari honentzat bizitza da hizpide oraingo honetan.

Amaitu ezina litzateke Anduren obra osoa hemen aipatzea; ezinbestekoa da, ordea, bere nobelek euskal literaturari egin dioten ekarpen berriztatzailea gogoratzea (“Hama-seigarrenean aidanez”, “Otto Pette”, “Kapitain frakasa”, “Konpainia noblean”). Idazkerari dagokionez ezin da ezer berririk esan, bere obra osoaren ezaugarri den euskara naturala eta aberatsa erabiltzen baitu hemen ere.

Berria egunkarian atalka argitaratzeko idatzi zuen narrazio sorta hau bere lehenengo bidaia kronika da, berak, batez ere, nobelagintza, narrazioa eta ipuingintzan lan egin baitu.

Beste autore batzuk, ordea, oso gustuko dute genero hau. Jon Arretxek, esaterako, narrazio mota honetako liburu batzuk argitaratu ditu: “Tubabu”, “Tupane eta bere seme-alabak” edo “Ekialdeko mamuak”. Urtzi Urrutikoetxeak bere aldetik, Deia egunkarian pasa den maiatzean argitaratu zuen “Hezurharagizko hiriko kronikak”, Bilboko auzoetatik egindako ibilbidean sortutakoak.

*Pili Agirre*

# HAMASEIGARRENEAN, AIDANEZ

Anjel Lertxundi Esnal • A???????ia, 2???????5

**L**ertxundi Esnal, Anjel. 1948ko martxoaren 9an jaio zen Orion, txikitari joan zen Zarautzera bizitzen. Apaiz ikasketak utzi zituen irakaskuntzan jarduteko; gero, Egin-en ibili zen, Ere aldizkarian eta Donostiako Irakasle eskolan.

Hamaseigarrenean, aidanez 1983an argitaraturiko lana da, 80.hamarkadako fenomenoaren artean bere lekua duena. Marquezen eragina suma daiteke, Crónica de una muerte anunciada-rena.

Baserrri giro hertsia eta zurrunean bizitzera kondenaturik dagoen emakume baten bakardadeaz mintzo da.

Atxagaren Bi anai (1985) eta Lertxundiren Hamaseigarrenean, aidanez (1983) dira garai hartako lanik biribilenak.

Pelikula ere egin zuen, 1985eko abuztuan eman zuten estreinakoz Donostian. Narratiba zalua darabil, estereotiporik gabekoa, 70-80 hamarkadako Euskal Herria islatzen du, arketipoetatik ihes eginez.

Sariak jaso zituen: Eusko jaurlaritzak Jon Mirande saria eman zion 1982an, baita kritikarena ere. Oso lan irakurria izan da, idazlea sagaratu duena. Protagonista lurrean etzanda, besteek bere sabel gainera egiten dute salto. "Baserrri munduan girotua egon arren, edozein ohiturazko aurkezpenetik ihes egiten du." (Mari Jose Olaziregi).

Aipagarria da lan honetan apustulariaren emazteari ematen zaion trataera. Neurritzko suspensea du, polizia generotik hurbil.

Urtain zenaren aitari gertatutakoak izan ziren istorioaren abiapuntu, Anduren esanetan. Liburuan, euskal giro hori aitzakia dela, garai hartako emakumeen bizimodua konta-

tzeko. Liburutik pelikularako jauzia egin zuen, baina pelikulan ez da barne-mundua nabarmentzen; barne bizitza adierazteko, asko jakin behar da medio horretaz.

Anduren lanek hurbiltasuna eskaintzen dute, horrek irakurle asko erakartzen ditu. Esaterako, Orio idazlearen mundu literarioa agertzen da, Goiko Kale-n eta Hamaseigarrenean, aidanez-en batez ere.

Argumentua: Apirileko goiz euri-tsu batean, Martzelina ohetik jaiki, eta badaki zortzi ordu beranduago gertatuko dena.

Senarra apustularia da, apustu xebreak egiten ditu, Martzelina etxean egoten da beti bere zain.

Hogeita hamar urte lehenago heldu zen Martzelina herrira, ganbaraz ganbara ibili zen aterpe bila. Domingok hartu zuen behin, haurdun lotu eta ezkondu egin ziren.

Martzelinak amaginarreba zaindu behar izan zuen, hau hil arte. Domingok ez zion inoiz barkatuko Martzelinari amaren heriotza. Martzelinak ere, umea galdu zuen.

Apustu bitxi batean hil zen Domingok.

Problema: ¿la mujer es el premio del fuerte o el apoyo del débil, según estos quieran? (Cesare Pavese)

- Martzelinak bere gorputzari buruz berba egiten du, gustuko du, agian bere barrua ere bai.
- Etxean ez dute berari buruzko ezer jakin nahi: maleta erretzen diote, eurenean garbi sar dadin.
- Kazetariarekin profesional portatzen da: Domingoren heriotzaren berri jakin nahian datorrenari, hotz

eta inolako esamesik esango ez diola garbi uzten dio.

Quando uno soffre, cree que al otro lado existe la felicidad. (C. Pavese)

- Martzelina ez beste emakume guztiak pozik bizi ziren: Martzelina triste, ilun agertzen da kontaeran, emakumeak ordea, herrikoak, kolorea jartzen dute etxeetako balkoietan.
- Martzelinak aitortza bat egiten du: Mariari kontatzen dio bere hilaurrarena. Seme galtze ezberdina izan zuten biek.
- Domingok Martzelina pozik ikusi zuen: asteburu pasa eroan zuen, maitalea eramaten zuen leku berera. Agian Martzelina pozik agertu zen senarra izorratzearen, bai lortu ere.

Y, sin embargo, no logro pensar una vez en la muerte sin temblar con esta idea; vendrá la muerte necesariamente, por causas ordinarias, preparada por toda una vida, infalible hasta el punto de que sobrevendrá. Será un hecho natural como el caer de la lluvia.

Y a esto no me resigno: ¿por qué no se busca la muerte voluntaria, que sea afirmación de libre elección, que exprese algo? ¿En vez de dejarse morir?. ¿Por qué? (Cesare Pavese)

- Domingok heriotza aurkitu zuen: erotzat zeukaten, baina agian helburua lortu zuen. Horrenbeste bilatu ostean. Bizitzaren jabe izan zen seinale.
- Martzelinak ez zuen dramarik egin: berdin hartuko zuen, bizirik zein hilik.

Ziortza









